



Ordiziarren garaia

**Jaiek jarraitzen
dute:**

**Itsasondo,
Zerain,
Gabiria,
Ezkio,
Zegama...**

**Iker Galparsoro:
Goiekiko gerente
berria**

**Goierri Konpeti:
laguntalde
autozalea**



UZTAILETIK AURRERA

FOTOETXE

**FUJIFILMEN FRONTIER
SISTEMAREKIN
UNIBERTSO DIGITALARI
IREKITAKO LEIHOA**



**UNIBERTSO
DIGITALARI
MURGIKIDUN**

ORLANDOKO (U.S.A.) FERIAN, INPRIMATZEKO SISTEMARIK OBERENETAKO BAT AUKERATUA.



GARMENDIA

Tejas y cubiertas S.L.


VACSOL - WR^R TRATAMENDUA EGURRARENTZAT

OHOL ETA ALTZARIEN TRATAMENDUA

Edozein motatako teilatuak
egiteko prestatuak,
komunitateak, baserriak,
txaletak eta abar

AZKENEKO AURRERAPEN GUZTIAK

AURREKONTUAK NEURRIRA



Maioz industrialdea, 25-26

ORDIZIA

Tel. : 943 161 032 / Faxe: 943 160 842

www.landrover.es



Land Rover kontzesionario berria ireki dugu Gipuzkoan. **EUROLAN 4x4**



THE LAND ROVER EXPERIENCE

EUROLAN 4x4 Donsotia-Hernani errepidea (Galarreta) Telefonoa: 943 331 006

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean)

124 posta-kutxa ORDIZIA

Tfnoa: 943 88 96 12

Faxa: 943 88 27 19

E-mail:

goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Publizitatea: Argider Mujika

Zenbaki honetako kronista eta

kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Iñaki Gurrutxaga, Saroi Jauregi, Agurtzane Bikuña, Oihana Sarasola, Iñaki Ugalde, Mari Flor Mendizabal, Aimar Maiz.

Fotokonposizio eta maketazioa:

Goierritarra

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 7.300 ale

SSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaularitzako
Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta
GOIERRIKO UDALEK
diruz lagundutako
aldizkaria



Matia Fundazioak eta Goiekik elkarlanean

Esperientziaren eskola

Goierriko esperientziaren eskola Matia Fundazioak eta Goiekik elkarlanean sortutako ekimena da. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizartekintza sailaren babesa eta laguntza jasotzen du. 2002/2003 ikasturtean bertan parte hartu nahi dutenentzat matrikula zabalik dago, uztailearen 30era bitartean. Izena emateko telefono zenbakiak: 943161537 - 943160970. Aurten Urola Garaiko herritarrek ere parte hartu ahal izango dute.

Esperientziaren eskola, esperientzien trukaketa bultzatzeko gune irekia da. 55 urtetik gorakoentzako gunea, "gure gizartean positiboki eragin ahal izateko baliabide egokia izan dezaten, esperientziak landuz, elkar trukatzuz eta era berean, kultura eta hezkuntza maila egokia lortuz". Titulazioa izatea ez da beharrezkoa.

Ikastaroan zehar, hiru gai multzo jorratuko dira:

- Oinarrizko multzoa, besteak beste, garapen egokia, funtzionamendu kognitiboa eta psikoafektiboa, osasuna zaindu eta hobetzea, gizarte harremanak eta komunikaziorako trebetasunak, soziologia-

gizarte politika, zuzenbidea, filosofia, psikologia eta eguneroko bizimodurako matematikak eta abar landuko dira.

- Multzo berezia, euskal kultura, Goierri eta Urola Garaiko historia eta ohiturak, soziologia, giza politika, zuzenbidea, filosofia, psikologia eta eguneroko bizitzarako matematikak, literatura eta informatika.

- Azken multzoa, aukerazko ikasgaiek osaturikoan, ekonomia, zientzia, eta teknologia, ekologia, komunikabideak, hezkuntza eta herri garapena jorratuko dira. Bukatzeko gizarte-ekintzako proiektu bat egin beharko da.

Ekintza osagarriak egingo dira: hitzal-diak, mintegiak, ibilaldiak, bisita kulturalak, beste eskola batzuekin elkar trukaketak eta beste.

Urrian hasiko da ikastaroa eta asteen hiru egunetan (asteartea, asteazkena, osteguna), egunean hiru orduz izango da. Ikastaroaren prezioa 150 eurokoa da. Dirulaguntzak eman ahal izango dira ezartzen diren baldintzen arabera.

Goierritarra Goierriko kanpo jaso nahi dutenentzat, posta gastuak ordaintzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia:	urtean 12 euro
Ipar Euskal Herria eta Europa:	urtean 24 euro
Europaz kanpo:	urtean 36 euro

92. artikulua orain!

Euskal Herriak espainiar eta frantziar estatuekin mantentzen duen gatazka honetan, espetxe politikak ezinbesteko papera betetzen du.

Espainiar eta frantziar estatuek euskal herritarrek lehen aldiz gatu hartu gintuztenetik, hamaika ahalegin egin dituzte Euskal Herria eta euskal gatuok ere deuseztatzeke espetxe politikaren bitartez.

Besteak beste, 1989an PSOEek dispersio politika diseinatu zutenetik, euskal preso sakabanaketa eta esku-bideen urraketak direla eta, salaketak eguneroko ogi izan ditugu, eguneroko ogi baititugu senide-lagunen istripuak, eguneroko ogi jipoiak, eguneroko ogi asistentzia sanitario eza, eguneroko ogi euskal preso politikoak deusezteko tresneria osoa.

Dena den, eta gehiegikeria guztiak salatzea nahiko genukeen arren, oraingo honetan, batez ere 92. artikulua aplikazio eza salatzea gatzatzi honen bitartez.

Iguingaria deritzogu gizatarrak, demokrata, biktima moztorroarekin doazen handimandien jarrera; iguingaria gobernuarena; iguingaria Bautista Barandalla, Iñigo Azkue, Sergio Fernandez eta Koldo Elizetxea bezalako egoera jasaten dutenekin espetxeke medikuek, epaileek, alderdi politikoek... daukaten jarrera.

Nola liteke gaixotasun sendaezina duen inor orain-

dik espetxean mantentzea? Nola liteke osasun arazo larriak dituen pertsona bat Euskal Herriatik kilometrotara dagoen espetxe batean mantentzea? Nola liteke espetxean bertan medikuaren asistentzia ukatzea? Nola liteke gaur egun inpunitate osoz ematen diren eraso eta eskubide urraketak ikustea? Nola liteke?

Guk hemenik, Alcala emakumeetako euskal preso politikoak, hau guztia salatzeaz gain, gure elkartasunik samurrena adierazi nahi genizuke gaixotasun sendaezina duen guztioi; elkartasuna 92. artikulua aplikatu diezazuten borrokan ari zaren guztioi eta elkartasuna espetxean gaixo egonik, osasun asistentzia eskasa jasotzen ari zaren guztioi.

Elkartasuna adierazteaz gain, zuen guztion borrokarekin bat eginez, hilabete batean zehar boroka ezberdinak antolatu ditugula jakin dezazuten nahi dugu. Nahikoa dela esateko! Azken finean, badakigu Holandako, Suitzako, Erresuma Batuko, Quebec-eko, eta, batez ere, Espainiako eta Frantziako eta Euskal Herriko espetxe ezberdinetan banatuta gaudenok, gure oinarrizko eskubide bakoitza errespetatu dezaten borroka egin beharra daukagula.

Hori dela eta, momentu honetan astebeteko gose greba burutzen ari gara eta gure borroka honekin, espetxe politika krudel hau mantentzen dutenak salatzeaz gain, euskal gizarteari deia egiten diogu: Euskal gizarteari, zuei da-

gokizue mugitzea alderdi politiko ezberdinekin, gizarte mugimenduekin, eragile ezberdinekin elkarlanean.

Euskal presook jasaten dugun kalbario honekin bukatzeke giltza zuon esku ere baitago.

Gaixotasun sendaezina duen pertsona bat bera ezin delako espetxean egon, 92. artikulua orain!

Eta egoera hau jasaten ari zaren guztiei, besarkada iraultzaile eta muxu bero baina.

Ainhua Irastorza, Simone Begiristain, Oskarbi Jauregi eta Alcala emakumeak-eko gainerako euskal preso politikoak

bakoitzaren ahalmen ekonomikoaren arabera diru ekarpena egin duzuen pertsonen, Kultur Elkartei, tabernei, Alderdi Politikoei, enpresei, dendei, harategiei, herriko udalari, garagardo eta sagardo barrikotean izan zineten guztiei, sagardotegiari, Xiberoako garagardotegiari... eta momentu honetan aipamenik gabe uzten ditudan beste hainbati eskerri asko berriro.

Horrela atundurak, diru bilketarekin, hondar aletxoak jarri dugu, Euskal Herriarren artean miloi bat euro biltzeko asmoa betetzetik gertuago jarriaz, baina ez gure hone-tan geratzerik nahi eta guzti hau Xiberotarren eta gure arteko hartu emanak sortu eta sakontzeko abiapuntua izatea nahiko gure, modu honetara euskal lurraldeen arteko kohesioa indartzuz.

Beraz, gonbitea luzatua dago, hori horrela izatea guztion esku dago. Animo eta aurrera!. Esan, dagoeneko egin dugunarekin, Euskal Herriko ortzian itzaltzeaz zegoen zarpigarren izarra, Xiberoa, guztioi keinuka jartzea lortu dela, nolabait bere esker ona erakutsiaz. Ez da hasiera txarra, ez horixe! Biba Xiberoa!.

*Asier Auzmendi Arrue
Ataungo Xiberoa Garatzen lan taldearen izenean*

Beajoandagigula! Esker onez atundurarei

Udalbiltzak antolaturiko eta bultzaturiko Zuberotarrek bat Auzolanean Kanpainaren barnean Ataungo Xiberoa Garatzen Lan Taldea sortu zen, herritarren artean kanpainaren berri eman eta 3.250 euro biltzeko. Esan, helburua lortu eta gauditu egin dugula, azkenean 3.478,40 euro bildu baitira. Eskerri asko herritar guztioi, modu batera edo bestera lagundu diguzun guztiei, gure azalpenak entzuteko etxeko atea zabaldu eta denbora hartu duzuenoi,



ARRIKUTZ Tailerrak

Autoen konponketa orokorrak

Salmenta

Informazioa

Karnetik gabeko autoak

Tel.: 943 88 52 00

Nafarroa Etorbidea, 51

BEASAIN

H HONDA



ETAk hildako Uribe ertzaina gogoan

Iazko uztailaren 14an Leaburun, ETak hil zuen Mikel Uribe ertzaina gogoan izan zuen Legorretako Udalak. Udalbatzar berezia egin zen. Manifestu instituzionala irakurri zuen Xabier Iraola alkateak. EAJ-EAKo bost zinegotzien aldeko botoak jaso zituen. Batasunakoak ez ziren udalbatzara joan.

Garzonen bahimenduak

Baltasar Garzon epaileak, Goierriko 4 taberna eta kultur elkarte enbargatu ditu. Batasunari 24 milioi euro ordaintzeko agindua eman zion Garzonek, kale borrokaren ondorioz eragindako kalteen erantzule nagusia delakoan. Batasunak diru kopurua ordaindu ez duenez, 109 kontu eta 75 elkarte bahitu ditu. Goierriren kasuan hauek dira: Beasaingo Arrano K.E., Segurako Elorri K.E., Zaldibiako Osinberde K.E. eta Lazkaoko Ansoategi Elkartea.

Zegama-Aizkorri maratoian goierritarren emaitzak

21.	Aitzol Telleria	Zerain	05:00:37
34.	Aitor Etxebeste	Beasain	05:14:43
35.	Juan Carlos Valdivielso	Beasain	05:15:52
43.	Mitxel Kuadrado	Ordizia	05:28:02
59.	Koldo Urrestarazu	Lazkao	05:38:32
65.	Aitzol Berasategi	Beasain	05:40:58
67.	Mikel Garmendia	Idiazabal	05:42:18
69.	Arkaitz Mendia	Lazkao	05:43:56
82.	Xabier Mendizabal	Beasain	05:55:42
84.	Iker Azurmendi	Beasain	05:57:12
96.	Felix Goiburu	Segura	06:02:56
98.	Aitor Sarriegi	Lazkao	06:03:10
104.	Aitor Mujika	Beasain	06:06:16
105.	Iban Iturri	Ormaiztegi	06:09:06
111.	Iurgi Auzmendi	Lazkao	06:16:01
113.	Eduardo Irastorza	Zegama	06:17:04
114.	Iñaki Mujika	Beasain	06:17:04
115.	Xabier Iurrebaso	Beasain	06:17:04
116.	Iñaki Maiz	Legorreta	06:17:52
117.	Jon Mikel Iparragirre	Zerain	06:18:43
120.	Guillermo Pinillos	Zegama	06:20:40
136.	Mikel Valdivielso	Beasain	06:29:09
152.	Gorka Auzmendi	Lazkao	06:53:00
155.	Iñaki Mendia	Ezkio-Itsaso	06:56:48
156.	Benito Mendia	Ezkio-Itsaso	06:56:48
157.	Juan Rubio	Ordizia	06:58:57
159.	Koli Aierbe	Zaldibia	07:05:23
160.	Jon Laso	Lazkao	07:05:23
169.	Jokin Ugartemendia	Olaberria	07:11:02
173.	Andoni Barandiaran	Lazkao	07:24:51
174.	Iker Sukia	Zaldibia	07:24:59
175.	Joxe Arrondo	Ataun	07:25:10
176.	Andres Arrondo	Ataun	07:25:10
189.	Felipe Rodriguez	Ataun	07:44:38

Josu Arratibel lan istripuan hilik

Gabiriako 37 urteko Josu Arratibel Txintxurreta lan istripuan hil zen uztailaren 10ean, Zumarragako Aceralia Redondo enpresan.

Istripua Etxegaraten

Uztailaren 7an, goizaldean, Etxegaraten izan zen istripuan, lagun bat hil eta 15 lagun zauritu ziren. Autobus batek eta kamioiak elkar jo zuten.

Idiazabal Gaztaren kofradiaren eguna

Uztailaren 7an, ospatu zuen Ordiziako Idiazabal Gaztaren kofradiak urteroko kapitulua. Laguntasuna Errondaila eta Joxe Kruz Arregi artzainak izendatu zituzten ohorezko kofrade berriak.



SEGURA IRRATIA

F.M. 89.2

EGUNEKO 24 ORDUAK ZUREKIN



✓ Aholkularitza juridikoa
✓ Entrepresa zerbitzuak
✓ Aseguruak

GERTU ABOKATUAK

Tel.: 943 16 21 92 Faxa: 943 88 36 33
Kale Nagusia, 2 BEASAIN



LEKIM HAROZTEGIA

SUKALDEKO ALTZARIAK
ALTZARIAK NEURRIRA

Ibabe Industrialdea, 11 pab. ☎ 943 16 12 83
LAZKAO ☎(mugik.) 608 - 61 95 01

Iker Galparsoro ordiziarra, Goiekiko gerente berria:

"Datorren urtean Goierriko plan estrategiko berria egingo dugu"

Apirilaren erdialdera hartu zuen kargu berria 33 urteko Iker Galparsoro ordiziarra: Goiekiko gerente postua. Hurrengo hilabeteetako asmoen berri eman digu ordiziarra. Bien bitartean, Goierri errepasso txiki bat egin diogu.

Nondik nora iritsi zara Goiekiren gerentzia posturaino?

Goiekin 1996tik nabil. Inku-bategian aritu naiz orain arte, enpresa berriei laguntza ematen. Joan Manuel Barandiaranek Goieki utzi behar zuenean, aukeretako bat, ni sartzea izan zen. Administrazio Kontseiluak hala onartu zuen. Kanpotik pertsona berri bat sartzea baino egokiagoa ikusi zen, barruko pertsona batekin jarraipena ematea.

Zer moduz lehenengo hilabete hauetan? Zein asmo daukazu datorren hilabeteetarako?



Ondo, oraindik hasi besterik ez dut egin baina gai asko daude mahai gainean. Lehen-dik martxan zeuden gaiak nire gain hartu eta ixten joatea da asmoa aurtengo plan operatiboa betetzeko asmoz. Datorren urteari begira Plan Estrategiko berri bat jarriko dugu martxan, aurrekoa 1990. urtean egindakoa baita. Garai hartako egoera erabat desberdina zen, krisialdi ekonomikoaren ondorioz langabezi tasa oso altua zen eta enpresa industrialen etorkizuna oso

beltza... Gaur egun egoera oso desberdina eta Goiekiren ustetan beharrezkoa da Plan Estrategiko berri bat egitea, gure norabidea zein izan behar den jakiteko eta batez ere, bailara orekatu bat lortzeko. Horixe da gure helburua, Goierri bailara orekatu bat izatea. Horretarako ezinbestekoa da ikuspegia bailara osokoa izatea eta ez lokalista.

1993an Goieki sortu zenetik hona, bailararen ikuspegia areagotu al da?

Nik uste baietz. Orain Goierri bere izena eta bere pisua badauka. Hemen bertan agian ez gara konturatzen, baina kanpora joandakoan, Goierri ezaguna da. Goierriren izaera gero eta zabalduagoa dago hemen. Garraio zerbitzu orokorra izateak eta horrelako zerbitzuek bailararen ikuspegi orokorra sentitzea errazten du.

Plan estrategikoa nola bideratu-ko duzue?

Plan estrategikoarekin ikusiko dugu gure errealitatea zein den, nora jo behar dugun, zein erronka ditugun, zein ekintza egin behar dugun... Ia 13 urte daramazkigu aurreko plan estrategikoa lantzen eta aurrera eramaten eta nik uste dut garaia iritsi dela plan berria egiteko. Agian ez da asko aldatuko. Posible da lehen geneuzkan lehentasunak berdinak izaten jarraitzea baina ikusiko dugu. Datorren urtean, urtariletik aurrera hasiko gara lantzen. Kontuan izan

GUKlan

*Berogintza
Iturgintza
Gasa
Klimatizazioa*

Tel.: 943 161 277 Faxa: 943 160 933

Nafarroa Etorbidea, 27
BEASAIN

Tailerra: Okorro, 6 - ORDIZIA

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

San Inazio, 14 ☎ 943 889 390 **BEASAIN**
Garagartza pl., 1 ☎ 943 805 327 **ORDIZIA**

GESTORIA Biok

ASEGUROAK

- ✕ Aholkularitza laborala eta fiskala
- ✕ Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 943 88 44 00 - 943 88 12 58

Goierri, 12 **ORDIZIA**

YARZABAL, S.L.

Zurgindegi mekanikoa
AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE
Isuses industrialdea - ARAMA
Tfnoa. eta Faxa: **943 88 90 17**

**ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
OBRAK
ERREFORMAK**

behar da datorren urtean udal hauteskundeak izango direla. Aldaketak egongo dira. Nik aurreko Administrazio Kontseiluan esan nuen, garrantzitsua zela oraingoak eta ondorengoak plan estrategiko honetan parte hartzea. Goiekiko Administrazio Kontseilutik irteten direnak, esperientzia badaukatelako eta asko aportatu dezaketeelako; eta baita ere sartu behar direnak, hurrengo urteetan beraiek egon behar direlako hau lantzen eta dinamizatzen. Hauetaz gain, noski, Goierriko beste agente eragileek ere bai. Irekia izan dadila. Ez dadila udaletxeetako gauza bat bakarrik izan. Oso aberasgarria da ikuspegi ezberdinetatik gauzak ikustea eta guztiak hartu behar dira kontuan.

Goierri nola ikusten duzu?

Nik ondo ikusten dut. Nik 2 hilabete daramazkit gerente bezala eta ez dut denborarik izan ikuspegi orokorra izateko. Nik, gehienbat, atal ekonomikoa ezagutzen dut, 6 urteotan horretan aritu naizelako. Baina nik pentsatzen dut Goierri gauza positibo asko dituela. Niretzat garrantzitsuena elkarlana da eta horren



kontzientzia hartu behar du. Goierri bezala indar gehiago egin dezakegu, bakarka baino. Bata besteari lagunduz, mesedea askoz ere hobeia izan liteke denontzat. Beste bailara batzuk baino kohesionatuagoa ikusten dut Goierri. Beste garapen agentzien artean bilerak egiten ditugu eta ez da hainbesteko bailarako sentimendurik. Eta hortik hasita gauza asko egin daitezke.

Ezagutzen duzun gaia ekonomia izanik, nola ikusten duzu Goierri ekonomikoki?

Industriari dagokionez, azken urte hauetan Goierriko enpresek, eta ez handiak bakarrik (traktoreak), baizik eta hainbat txiki ere, denbora berrie-

tara egokitzen joan dira. Horrela, lehen lana enpresa gutxi batzuetan kontzentratzen bazen ere, gaur egun banatua dago. Nire ikuspegitik, momentu honetan Goierriko enpresak sendotze prozesu batean murgilduta daude eta horren ondorioz lanpostuak sortzen ari dira krisialdiari era egoki batean aurre eginez. Hitz batean esan dezakegu enpresak lehiakorragoak direla.

Bestalde, ahaleginak egiten ari gara dibertsifikazioa eman dadin, zerbitzueta enpresa berriak eraikiz inkubategiaren bitartez eta zirkuitu ekonomiko berri bat sortuaz aisialdia eta turismoaren inguruan. Azken atal honetan aipatzekoa da Goitur egiten

ari den lan bikaina.

Eta lehenengo sektorea?

Goimen ari da lanean arlo horretan, aholkularitza emanez eta dibertsifikazio bide berriak jorratuz. Hala ere, nahiko larri ikusten da. Nire ustez sektorea profesionalizatzerat doa pixkanaka. Lehen nekazari askok esplotazio txikiak zituzten. Hori aldatzen ari da, geroz eta nekazari gutxiago daude eta profesionalagoak dira esplotazio handiagoak dituztelarik. Kanpotik datozen konpetentzia oso handia da eta horrek lehiakorragoak izatea eskatzen die gure nekazariei. Dibertsifikazioa ere irtenbide posible bat izan daiteke (nekazalturismoak, base-ri-eskolak, e.a.)

Goierriren etorkizuna baikor ikusten duzu, beraz.

Ni oso baikorra naiz eta alde horretatik ondo ikusten dut. Baina ezin gara gelditu zein ondo gauden, zein onak garen esanez. Garrantzitsua da beti aurrera begira egotea. Zein aldaketa egon daitezkeen ikusi eta ahal dela aurre hartzea. Autokonplazientzia da etsaia handiena. Gauzak beti hobetu daitezke.



MUJICA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19

☎ 943 88 11 94

ORDIZIA



FERNANDO ARANA LEKUONA

Jai zorientsuak guztioi!

Amerika, 2 ☎ 943 88 89 80

ORDIZIA

ALAIA

Taberna
Kafetegia

Festa zorientsuak opa
luzkizuegu denoi

Urdaneta, 2 ORDIZIA

**"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"**



K. Nagusia 35 Elosegi, 14 Sta. Maria, 19

☎ 943 88 77 58 ☎ 943 88 72 79 ☎ 943 16 00 44

BEASAIN LAZKAO ORDIZIA

Santa Ana jaiak Ordizian

Uztailak 18, osteguna:

19:00etan: Beti Alai Pilota-
lekuan koadrilen arteko sas-
kibaloï txapelketaren finala.

Uztailak 19, ostirala:

22:15ean: Herri antzokian
antzerkia: Ordiziako 'Urrup'
Taldearen Carol López Díaz-
zen 'Susie' lana.

23:30ean: Plaza Nagusian,
rock kontzertua Doctor De-
seo taldearekin.

Uztailak 20, larunbata:

Txikien koadrila eguna:

10:00etan: Gudariaren Etorbi-
dean, XXIX. Chapel Gorri
Txirrindulari Proba, 2.urteko
kadeteen mailan. Amaiera,
11:30ean.

12:00etan: Haurren egunaren
hasiera adieraziz suziri eta
bonben jaurtiketa. Ordu bere-
an udaletxean aginpidea
emango zaie haurren Alkate
jaun-andreei. Plaza Nagusian
Txikien koadrilak elkartzea.

Ondoren: Buruhandi eta
Erraldoien alardea, txistuz,
trikitixaz eta Txikien Koadri-
laz lagundurik.

16:00etan: J.M. Barandiaran
Plazan, altxorraren bila.

17:00etan: Beti-Alai pilota-
lekuan, gomazko pilotaz pa-



la-partidak: finalak.

18:00etan: Buruhandi eta
Erraldoiak, Ordiziako Txistu-
larietara batera. Udaletxetik
Txikien Koadrilak irtengo di-
ra 'Lagunak' Txarangarekin.

19:00etan: Plaza Nagusian,
haur animazioa pottokak, bi-
gantxak,... 'Lagunak' txaran-
garekin.

20:00etan: Beti Argi banda-
rekin Txikien koadrilen kale-
jira.

22:30ean: Arboledan Zezen-
Suzkoa, Beti Argi bandak
alaitua.

23:00etan: Beti Alai Pilota-
lekuan haurren mozorro dan-
tzaldia, 14 urtez beheko haur
eta horien gurasoentzako an-
tolatua, Beti Argi bandarekin.

Uztailak 21, igandea:

08:30etik 17:00etara: Gain-
tzako Barriola-beheko base-
riko lurretan, arku tiroko Liga
Nazionaleko finala.

09:00etan: Goiz eresia Ordi-
ziako Txistularietara.

10:45ean: Haurren alkate
jaun-andreei harrera egingo
zaie udaletxean.

11:00etan: Meza Santua.
Meza bukatzean Danborrero
eta Upeltxo taldeek, Beti Ar-
gi Bandaren laguntzaz, Ordi-
ziako Martxa joko dute.

12:00etan: Plaza nagusian,
haurren ohiko aurrekua.

16:30ean: Beti Alai pilota-
lekuan Ordizia VI. Torneoaren
pilota finalak.

20:00etan: Haurren danbo-
rrada.

Uztailak 23, asteartea:

22:15ean: Barrena Kultur
Etxean, kafe-antzerkia: Tetra-
tro taldearen 'Cirugia estreti-
ca' lana.

Uztailak 24, asteazkena:

12:00etan: Txupinazoa.
Kanpaiak jo eta jo hasiko di-
ra, suziri eta bonbak jaurti eta
jaiei hasiera ofiziala emango
zaie, 'Lagunak' txarangak
alaiturik.

12:15ean: Buruhandi eta
erraldoien alardea, txistuz,
eta trikitixaz lagundurik.

18:00etan: Buruhandi eta
erraldoien irteera Ordiziako
txistularietara.

18:00etan: Altamirako ze-
laiaren eranskinean, zaldi-
ikuskizuna Nafarroako Zaldi-
eta Kirol Elkartearen eskutik,
"El Albero" Zezenzaleen pe-
ñak antolatuta.

21:30ean: Bustuntzatik ohi-
ko Danborradaren irteera.

Ondoren, alde zaharrean
Koxkola txaranga.

23:30ean: Boxeo jaialdia.

24:00etan: Alde zaharrean,
'Deabru beltzak' taldearen
'Les tambours de feu' ikuski-
zun ibiltaria.

borja de la cuesta
Jai zoriontsuak denoi!
Kortinak, alfonbrak,
etxeko arropak
Oihalak
Plaza Nagusia, 4 **ORDIZIA**

Jai zoriontsuak pasa ditzazuela!
HIDALGO
Bitxitegia - Erlojutegia - Opariak
Legazpi Kalea, 3 943 88 04 06 **ORDIZIA**
Diseinua
Berrikuntzak
Kalitatea
Garantia

URDANETA
INPRIMATEGIA
KOLOREZKO OFFSETA - FOTOKONPOSAKETA - TIPOGRAFIA
DISEINU GRAFIKOA ORDENAGAILUZ
Urdaneta, 26 ☎ 943 88 04 46 Faxa: 943 16 14 07 **ORDIZIA**

Arantxa
Lentzeria
Jai Zoriontsuak!
J. M. Barandiaran, 3
☎ 943 88 76 15 **ORDIZIA**

Uztailak 25, osteguna:

07:30ean: Laguntasuna Ron-dailaren goiz eresia.

09:30ean: Profesionalentza-ko Nazioarteko LXXIX. Villafranca Txirrindulari-Proba.

13:30ean: Plaza Nagusian, Laguntasuna Errondailaren kontzertua.

13:30ean: LXXIX. Villafranca Txirrindu Probaren amaiera.

18:00etan: Altamirako zelaiaren eranskinean, "El Albero" Zezenzaleen peñak antolatuta, Zaharren Egoitzaren aldeko Zezenketa jaialdia. Bertan, José Antonio Campuzano, Sergio Sanchez, José Ramón Martín eta Victor Janeiro toreatzaileek eta Igor Etxaniz burzikariak eta Ekaitz Rodríguez nobilleroek parte hartuko dute, Salamanca-ko Jesús Esperabé de Arteagaren ganadutegiko zekorrek.

18:30ean: Larruzko pilotaz pala-partidak, Beti Alai pilotalekuan.

18:30ean: Alde zaharrean eta Urdaneta kalean erraldioen kontzentrazioa.

19:00etan: Koxkola txarangak.

19:30ean: Alde zaharrean, Mexikoko (Zacatecas) Nochistlánko "Los Perez" Mariachien eskutik kalejira.



21:00etan: Beti Aegi bandarekin kalejira.

23:00etan: Domingo Unanue Plazan, Mexikoko (Zacatecas) Nochistlánko "Los Perez" Mariachien taldearen ekitaldia.

24:00etan: Plaza Nagusian, dantzaldia 'Eklipse' orkestrarekin eta Koxkola txarangarekin.

24:00etan: Beti Alai pilotalekuan dantzaldi-ikuskituna: 'Disco Star Show'.

Uztailak 26, ostirala:

Santa Ana eguna:

06:00etan: Ohiko goizaldeko danborrada.

Ondoren: Arboledan, txokolate jana.

08:30ean: Ordiziako Txistulariek eta Trikitixak alaituriko goiz eresia.

09:00etan: Irungo Udal Musika bandaren kalejira.

11:00etan: Parrokian Meza Nagusia, Udalbatzarra bertan dela, Santa Ana Abesbatzarekin.

12:15ean: Plaza Nagusian, agintarien soka-dantza.

13:00etan: Plaza Nagusian, Irungo Udal Musika bandaren kontzertua.

18:00etan: Beti Alai pilotalekuan profesionalen arteko pilota partidak eskuz: 1. partdua: Gonzalez-Urberuaga / Chafee-Laskurain; 2. partdua: Eugi-Zezeaga / Goñi II-Goñi III.

18:00etan: Barandiaran Plazan, 'Tutik ere clowns' ikuskituna, Gari, Montxo eta Jose Lontxo pailazoeekin.

19:00etan: 'Lagunak' txaranga.

19:30ean: Alde zaharrean, kale-antzerkia: 'Trapu Zaharra' taldearen 'Lagarren tenorea' ikuskituna.

21:00etan: Kalejira Beti Aegi bandarekin.

22:30ean: Domingo Unanue Plazan dantza folklorikoaren jaialdia: Ukraniako Zagrava taldea.

23:30ean: Plaza Nagusian, 'Iruña Band' Orkestrak eta 'Lagunak' txarangak alaitutako dantzaldia.

23:30ean: 'Disco Top' dantzaldi-ikuskituna, Beti Alai pilotalekuan.

Uztailak 27, larunbata:

Santanazale eta koadrilen eguna:

09:00etan: Ordiziako Txistularien eta trikitixen goiz eresia.

11:00etan: Parrokian Santanazaleen meza.

12:00etan: Santanazaleen ohiko esku-dantza Plaza Nagusian.

13:00etan: Koadrileen irteera.

21:00etan: Kalejira Beti Aegi bandarekin.

23:30ean: Plaza Nagusian, 'La Factoria' Orkestrarekin.

23:30ean: Dantzaldia 'Drindots' taldearekin, Beti Alai pilotalekuan.

Arkupe
tapizegia

Tapizeak - Ohe estalkiak - Endredolak
Mantak - Malndreak - Storeak
Toallak - Gortinak eta osagalak

J. M. Barandiaran Plaza
☎ 943 88 00 84 ORDIZIA

Jai zoriontsuak!

X **kel**

ARMAIRU
ENPOTRATUAK
NEURRIRA

Urdaneta, 41 ☎ 943 16 16 06 - 619 770 600 ORDIZIA

Arrandegia

Goen

☎ 943 888 633
Kale Nagusia, 6
ORDIZIA

ITZIAR

☎ 948 467 406
Zumalakarregi, 2
ALTSASU

Poltsikokoa: ☎ 616 435 204

Jai zoriontsuak denoi!

batasuna

Ordizian eta bisitari guztioi jai zoriontsuak opa dizkizuegu

ORDIZIA

Bertso-eskolaren tonbola: Santa Ana jaietako erreferentzia puntua

Ordiziako Santa Ana jaietan, udaletxeko arkupea, tonbolaren txokoa izan da. 30 urtetik ondo gora erreferentzia puntu garrantzitsua da Ordiziako Santa Ana jaietan. Lehenengo urteetan Karitas-ek jartzen zuen tonbola, ondoren Jakintza Ikastolak hartu zuen lekukoa, eta azkenik, 1988an, Goierriko bertso-eskolak hartu zuen ardura, Argi-Berri elkartearen eskutik. Bertso-eskolaren finantzabide nagusia da tonbola.

Argi-Berri elkarteak Joxe Mari Barandiaran eta Pedro Irastorza elkartu ditugu bertso-eskolaren tonbolaren inguruan hitz egiteko. Ordiziako jaietan erreferentzia bihurtu den tonbola.

Gaur egun, herrietako jaietan ez da oso ohikoa izaten tonbolak antolatzea. Goie-



Tonbola zaharra.

rrin, oker ez bagaude, Ordizian, Zegaman, Seguran eta Mutiloan antolatzen dira. "Lehen garai batean, ikastolek tonbolak jartzen zituztenean, 17 herritan jartzen ziren. Lazkaoko Joxe Mari Aranburu arduratzen zen tonbolak antolatzeaz. Zumaitik Etxarrirainoko tonbolak antolatzen omen zituen. Ikastolak handitzen joan diren neurrian, tonbolak asko ez duenez suposatzen, pixkanaka uzten joan zen", esan digute.

Goierriko bertso-eskolak Ordiziako Jakintza Ikastola-

ren lekukoa jaso zuen 1988an. Aurretik, Karitasek jartzen zuen tonbola udaletxeko arkupeetan. Pedro Irastorza, 40 urte baino gehiago izango direla dio udaletxe azpian tonbola jartzen dela.

Lan handia

Bertso-eskolako tonbola, neurrira egindako tonbola da. "Aurretik Ikastolako erabili genuen. Bi arotzek muntatu zuten eta haiek esaten zuten, inork ez zuen asmatuko tonbola hura muntatzen", dio Joxe Mari Barandiaranek.

Tonbola antolatzeak lan handia ematen du. Aurretik sariak erosten eta boletoak egiten egin behar den lanaz gain, jaiegunetan ere pertsona askoren borondatezko laguntza behar-beharrezkoa da. "Guk bost egunetan irekitzen dugu tonbola, eta 50 bat lagun behar dira, tonbolan egoteko. Aurretik 5 bat laguneko taldea egoten da dena antolatzeke". Argi-Berri elkarteak bazkideek osatzen dute lana. Hori bai, uztailearen 27an, ezkonduen eta koadrilaren eguna izaki, segurarrek betetzen dute eguna. Barandiaranek eta Irastorzak, bai Argi-Berriko elkarteak bazkideei eta segurarrei eskerrak eman nahi dizkie lerro hauen bidez.

Umeen egunean, larunbatean eta igandean, arratsaldean, 6etatik 10etara irekitzen da tonbola. 24tik 27ra, 6etatik 10etara eta 10etatik 1,30ak aldera arte. 24 eta 25a izaten da jendetzarik handiena. Kanpoko jende gehiena orduan nabarmentzen da. 26 eta 27an asko jaisten da.



BIÑASPRE

ESTETIKA ZENTRUA

Aurpegiko tratamendu pertsonalizatuak
Gorputzeko tratamenduak
Depilazio elektrikoa (minik gabe)


LASER DEPILAZIOA

K. Nagusia, 8 ☎ 943 88 13 37 ORDIZIA



*Artesania
Opariak*

K. Nagusia, 28
☎ 943 16 02 48
ORDIZIA



RUGAZTIBI

AHOLKULARITZA

Domingo Unanue plaza, 2 behea
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58

UDAKO ORDUTEGIA:
9:00etatik 15:00etara
Abuztuaren 10etik 18ra
oporrerengatik itxita

ORDIZIA

*Jai zoriotsuak
guztioi!*

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble ajentzia

Finantzabide nagusia

Bertso-eskola finantzatzeko erabiltzen dute tonbola Argi-Berrikoek. "Oso ondo etorri zaigu guri tonbola. Bertso-eskolaren finantzabide iturri nagusia da. Goierriko udalestatik jasotzen dugu dirulaguntza, baina oso zaharkitua gelditu da 1987an sinatutako hitzarmen hura. Izan ere, talde gehiago dago, gastu gehiago", diote. Oraindik ere tonbolaren beharrean dago bertso-eskola.

Bien bitartean, Goierriko bertso-eskola bere fruituak ematen ari da, batzuen eta besteen laguntzari esker. Esate baterako, aurten, Gipuzkoako Eskolarteko bertso txapelketan, finaleko 8 bertsolaritatik 4 goierritarrak izan dira. "Sekula ez dira bertso-eskola bereko lau finalista izan. Ez dute irabazi, baina paper ona da", adierazi digu Barandiaranek.



Tonbolako zozketan saritutako telebista jasotzen.

Aldaketa gutxi

Urte hauetan guztietan ez da aldaketa handiegirik izan tonbolaren bilakaeran. Sariei dagokionean, ez da gehiegi aldatu. "Lehenengo urteetan ardo botilak eta alkoholduen botilak gehiago sartzen ziren, baina gero kentzea erabaki genuen. Hori bai, gaur egun, Taiwan aldean egindako materiala ekartzen da".

Jendeari dagokionean, jende kopuru beretsua ibiltzen da azkeneko urteotan, jendeak ohitura hartua baitauka udaletxeko arkupeetatik bueltatxo bat egin eta diru pixka bat uzteko. "Bi jende mota bereiztuko nituzke: batzuk, bertso-eskolaren aldekoak direlako eta besteak jokatzea gustatzen zaielako. Gazte jendea gutxiago etortzen da".

Aurten, hori bai, aldaketa bat izango da: lehenengo aldiz, zorioneko euroa ere iritsi baita bertso-eskolaren tonbolara.

Bitxikeriak

Horrelakoetan bitxikeriak ere ez dira falta izaten. Lapurretaren bat edo beste izateaz gain, bitxikeria bat gogoratu digu Barandiaranek: "Gaue-tan izaten da, zenbait ordutatik aurrera, bakarren bati opariren baten kapritxoa sartu eta hura tokatu artean, jokatuta eta jokatu aritzea".

Pedro Irastorza askotan pena ere sentitzen omen du: "adibidez, 20 boleto erosi eta sari bakar bat ez tokatzeak pena ematen du. Hurrengoari, 4 boleto erosi eta hiru sari tokatzea ere egokitzen da. Saiatzen gara boletoak ondo nahasten eta helburua, lau boletoko sari bat ematea da eta inoiz ez dugu lortu".

EROSKI

KAFETEGIAK

Jai zoriontsuak
opa dizkizue

☎ 943 88 27 93

ORDIZIA

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Promozioa: auto ordua 12 euro

Aita Urdaneta ORDIZIA
☎ 943 88 72 76



ORDIZIA
BIDEO
KLUBA

☎ 943 88 79 19
Domingo Unanue, 1 ORDIZIA



Umeen arropa denda

FESTETAN ONDO IBILI
ETA OPORRAK ONDO PASA!

☎ 943 16 12 39
Santa Maria, 13
ORDIZIA



AZURMENDI
Harategi - Urdaitegia

Victor Mendizabal, 2 ☎ 943 88 47 65 ORDIZIA
San Inazio, 6 ☎ 943 16 16 74 - 943 16 13 28 BEASAIN



JOSUNE
EDERGINTZA ETA
LURRINDEGI ZENTRUA

J. M. Barandiaran pl., 3
☎ 943 88 28 88
ORDIZIA

- Aurpegiko tratamendu espezifikoak
- Gorputzeko tratamendu pertsonalizatuak
- Zutikako solariuma
- Mikropigmentazioa (perfilatuak, bekainak, begiak, ezpainak)

Jai zoriontsuak!



Iñaki Garmendia eta Asier Mendizabal ordiziarren bideo lana Goierri Konpeti

Uztailaren 5ean Donostian aurkeztu zuten Iñaki

Garmendia eta Asier Mendizabal ordiziarrek 'Goierri Konpeti' bideoa. Goierriko laguntalde autozale baten egunerokotasuna islatzen du bideoak. Euskaraz eta erdaraz nahasian hitz egiten dute eta ingelesez azpiztitulatu dago.

- Zer adierazi nahi izan duzue Goierri Konpeti ikus-entzunezkoarekin?

-Dokumentalaren formatua aukeratzean eta, batez ere, artista bezala mantendu dugun distantzia mantentzean, inplizitu zegoen, hain zuzen, aurreiritzitik ezer ez adierazi nahi izatea. Hau da: gertakariak beraiek beteko lukete esanahiaren eskaera hori.

- Zeintzuk zarete egileak?

-Iñaki Garmendia eta Asier Mendizabal, biak ordiziarrek, biak ere denbora luzez ibilbi-



de antzerako bat jarraituak, Bilboko Arte Ederren fakultetetik Artelekura eta orain biak ere Bilbon bizi eta lanean. Edizio lanetan Iurre Telleria hernaniarra aritu da.

- Nondik sortu zen ideia?

-Goierriko paisaia sozioekonomikoa eta bertan garatzen diren gazte-kultura ezberdinak beti erakarri izan gaituzte bioi artista bezala. Zentzu horretan, lan honetarako aukeratutako lanak interes guzti horiek batzen zituen, alde batetik kotxeen inguruko zaletasunak ematen duelako, nolabait, egoera sozial horren be-

rri. Bestetik eta bereziki, gazte talde baten barne funtzionamendua eta harremanetarako lenguaia izan ditugu beti kontutan bideoaren gai esanguratsuenak diren eran.

- Zergatik dokumentala?

-Dokumentalak egilearen ikuspegia problematizatzen du beti. Objektibotasuna ezinezkoa dela onartu eta gero, gertutasun inplikatuaren aukeratik, distantzia harridurazko batenera, sortzailearen presentzia beti da zail samarra. Horretan egungo artearen zereginarekin zerikusi handia du, zenbait artistak esanahiak

eratzeari uko egin dio eta bere begiradarekiko ulermena baino, konplizidadea eskatzen du. Dokumentala era berberean lantzea erraza izan zaigu.

- Era honetako lehenengo esperientzia izan al duzue?

-Bai, baina badu aurrean esandakoagatik aurreko bakarkako lanekin erlaziorik.

- Grabaketa lana noiz eta nola egin duzue?


-Urtebetez jarraitu ditugu Goierri konpetiko mutilak, bere egunerokotasunean eta zenbait gertakari bereziren inguruan, baina beti ere gidoi erabakirik gabe.

- Autozaleek eta Goierriko paisaiak zer zerikusi dute?

-Berezkoa duten erlazioa baino ez, hau da, Goierriin ibiltzen direnez gero Goierriko paisaiaren parte dira.

- Giroko soinua mantendu duzue. Zergatik?

-Lanerako metodoari fidelotasunagatik agian, ez luke zentzurik izango distantziatik



Filipineta, 13 - behea

ORDIZIA

☎ 943 88 49 50

ORDIZIAN ETA BEASAINEN, KALITATERIK ONENENKO ERAIKUNTZAK:
ETXEBIZITZAK, APARTAMENTUAK, LOKAL KOMERTZIALAK ETA GARAJEAK

MG

Argiztapenak



Euskal Pilota, 4 eta 5

☎ eta faxa: 943 88 86 88

☎ mugikorrek: 619 46 22 65

eta 619 46 22 68

ORDIZIA

egin izan den lan bati komen-
tario edo musikarik gainjar-
tzeak.

- Nolako harrera izan du?

-Estreinuko eguna Donostian
arrakastatsua izan zen, batez
ere, Goierri konpetiko gazte-
ekiko jakinnahia, berez auto-
ekin interesik ez duen jende-
tik etorri zelako. Eta beraien
presentzia, berandu samar iri-
tsi behar izan bazuten ere, oso
eskertua izan zelako ikusle-
engandik.

- Nola zabaltzeko asmoa duzue?

-Arte arloan mugitzea, prin-
tzipioz, eskurago dugu, Ams-
terdameko erakusketa batera-
ko interesa azaldu zaigu da-
goeneko, baino dokumentala-
ren berezko zirkuituetan ere
aurkeztea gustatuko litzai-
guke. Ildo horretan ere, Ordizia-
ko Udalarekin elkarlanean
aurkezpen bat egiteko aukera
dabilgu eskuarte, berezi-
ki estimatzen dugun aukera
da gainera azken hau.

- Besterik...

- Eskerrik zinezkoena Goierri
Konpetikoei, askotan zertan
genbiltzan oso ondo ulertu
gabe ere, bere egunerokoan
muturra sartzen utzi digutela-
ko eskuzabaltasun osoz.

Goierri Konpeti: autozaletasunak elkartutako lagun taldea

*"Goierri Konpeti lagun talde bat da. Lehen
elkarren artean ez genuen zer ikusi handi-
rik, agian bistaz ezagutzen ginen. Autozaletasunaren inguruan elkartzen joan ginen.
Hortik koadrila bat sortu zen. Aurrerago
geure autoetan pegatina bat ezartzeko izen
baten bila hasi ginen eta Goierri Konpeti
jartzea erabaki genuen",* dio Arkaitz Lasa
ordiziarrek. Taldean Goierriko hainbat he-
rritakoak daude: Ataun, Lazkao, Ormaizte-
gi, Olaberria, Ordizia...

Taldeak hasiera duela 4 urte inguru izan
zuen, elkarren artean zaletasun bera zuten
lauzpabost lagun elkartu ziren, hauen bidez
beste batzuk inguratu ziren eta afari bat
egin zuten. Hor abiatu zen gaur egun 12-15
kide dituen Goierri Konpeti taldea.

Taldeak ez du helburu berezirik: *"azke-
nean koadrila bat gara, baina zaletasun ja-
kin batek elkartu gaituena, nik helburu be-
zala daukat noizbaiten konpetizioa zer den
probatzea, eta autokroseko Euskadiko txap-
elketan parte hartzeko autoa prestatzen
ari naiz",* dio Arkaitzek. Idiazabalen, Ari-
masagasti auzoan baserri bat alokatua dute
bertan elkartzen dira eta auto zaharren bat
lortzen badute, pixkanaka, duten diruaren
arabera, hau konponduz joaten dira. Aste-
gunetan lanetik atera ondoren bakarren ba-
tzuk elkartzen dira, bertan egon edo kotxe-



Bideoko irudiak.

ren batean zerbait eginez. Asteburuetan or-
du gehiago egiten dituzte elkarrekin lanean,
edo parrandan edo rally eta lasterketak
ikustera joanez. Pilotoak ezagutzen dituzte
eta hauei asistentziak egiten laguntzera ere
joaten dira. *"Iaz, adibidez, Madarixa pilo-
toak autoa txikitu zuen eta konpontzen la-
guntzeko Ordiziako jaietan txosna jarri ge-
nuen".*

Bideoko protagonistak

Asier Mendizabal Arkaitzen koadrilakoa
da. Interesatuta zegoen zaletasunaren ingu-
ruan nola elkartu zitekeen horrelako taldea.
*"Grabatzen hasi zirenean oso biolentoa
egiten zitzaigun, baina denborarekin kama-
rara ohitzen joan ginen eta bideoa ikusi on-
doren oso gustura geratu gara".*

Uztailaren 5ean aurkeztu zuten Donos-
tian eta autoen munduekin zerikusi handi-
rik ez zuen jende mordoska azaldu zen ber-
tara. *"Jendea oso gustura atera zen eta ho-
ri oso polita izan zen guretzat".*

THERMOMIX

Geure errezetak prestatzeko balio duen makina.

Ondorengo funtzioak eskaintzen dizkigu Thermomixek: birrindu,
ehotu, haustu, maionesak egin, sorbeteak egin, harrotu, oliofrijitu
xehetua, xehetu gabeko oliofrijitua, beharrezko kantitateak oreu,
papolak...

MARIA ARDANAZ

Tel.: 943 08 45 86

Bustuntza plaza, 4 - 5.A ORDIZIA



VORWERK

JOSUNE & KLAUDE
ileapaindegia & edergintza

Edergintza eta ileapaindegia
tratamendu guztiak

Iurtxo, 5 943 16 22 56 ORDIZIA

Argitarapen honen edizioako laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa
zuri esker

gizarte ekintza

Ostiela aldizkariak kaleratu du lehen euskal aldizkari erotikoa "Esku bakarrarekin irakurtzeko aldizkaria"

Pornolore, larrugintzako eskuliburua. Horixe da Ostiela aldizkariak kaleratu berri duen azkeneko ale berezia. Lehen euskal aldizkari erotikoa da berau. Ostiela aldizkariaren arduradun den Jon Mikel Aranok kontatu dizkigu aldizkari honen nondik norakoak.

logoa eta ni neronen sarrera tartean direla), bi poema eta elkarrizketa bat biltzen dira.

- Testuak, agazkiak... zer aurkituko dugu?

- Testu gehiago argazkiak baino. Liburu batek adina testu du eta 85 bat irudi, gogortxoak eta biguntxoak, topikoak eta artistikoak, dibertigarriak ere bai. Bertan, testu du-darik gabe literarioak biltzen dira (halako aldizkarietakoak baino hobeak), handik eta hemendik hartutako hamaika erreferentzia, keinu, testu plagiatu, e.a. Helburua: aldizkari pornoen parodia egitea, halako testuak erabiliz beroriek satirizatzea, "jopu edo esklabu zorionsuen" lepotik barre egitea eta gizonezko zein emakumezkoei "eragitea", bai sexua eta bai irri-barrea. Erotismo-pornoa intelektualizatua?

- Ale bakar eta berezia da Pornolore edo eta jarraipenik izango du?

- Ale bakarra eta berezia da oraingoz, lan handiak hartu ditugu eta asko dibertitu gara hau burutzen, baina asetuta bukatu dugu: 1.000 argazki-irudi ikusi eta azkenean 85 bat aukeratu behar izan ditugu... Inprentatik kiosko edo liburutegietan bidea egin duen 1. euskal aldizkari erotikoa egin dugu, eta ez gozaz esatera besterik egingo ez



dugunik, baina behar bada beste batzuk emango diote jarraipena eta agian aldizkari elektronikoa izango da.

- Zer moduzko harrera izan du?

- Jende aurrean daudela, batzuk "interesik ez balute bezala" hartu dute, baina gero jendeak heldu dio, eta bakardadean "erabili" ere erabili omen dute. Euskaraz irakurtzen ez duen jendea ere harapatu dute Pornolore, Larrugintzako Eskuliburua irakurtzen. Lagun artetik zoriondu gaituzte, eta beno, ale historikoa dela eta, oso eroso ere ez (gai hauek delikaturatzen, "tematzat" hartzen baitira), baina pozik-edo gaude. Politikoki zuzenak izateko batere asmorik gabe jaiotako narrazioak dira, eta espero dugu sentiberatasunean sentiberaegiak ez asaldatzea edo eskandalizatzea gehiegi.

- Non eros daiteke? Zenbatean?

- Euskal Herriko 100 bat liburutegia/kioskoetan. Hemen, Mirentxu, Gerriko eta Mujika liburutegietan, 3 eurotan. Gainerakoan, Bilintx-etan eta bestetan. Harpidetza eta bilduma eskaera merke askoak ere egin daitezke Ordiziako 131 p.k.-ra edo ostiela@auto-via.com-era idatziz.

- Ostiela aldizkariak 26. alea kaleratu du. zer moduzko osasuna du Ostielak?

- Sei urte t'erdi daramatzagu "Ostiela!" kaleratzen, 1.000 orritik gora, eta goierritar eta kanpotar ugari ditugu kolaboratzaile (hemengoak dira, Koldo Goitia, Andoni Eskisabel, Juanbau Erauskin, Aramenditarrak e.a.). 1.300 ale inprimatzen ditugu (2.000 aletara ere iritsi gara), eta saldu gabeko aleak geratzen bazeizkigu ere, balantzea bikaina da: euskal kulturako erreferentzia bat izatera iritsi gara, puntako gaiak atera ditugu, polemikaren bat piztu ere bai euskal kulturaz, Aitorren Legenda itzuli dugu euskara lehenbizikoz, makina baten lehen plaza izan da gurea, eta beno, ekarpenak eginez, aurrera jarraitu beharko dugu. Laster, hasierako GOIERRITARRAn ateratako "goierritarkeria" batzuekin monografikotxo bat egin nahi genuke la aurreratzen dizuegu.



GENERALI
Aseguroak

INAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
943 88 87 02
BEASAIN



inausti
KARROZERIA

N-1 errepidea, lurre auzoa
943 88 43 01 OLABERRIA

FOTO ORDIZIA ARGAZKI-DENDA

DOMINGO UNANUE,1

(GELTOKI PAREAN)

**ERREBELATUA
ORDUBETEAN**

20 x 30 neurriraino

beti Kodak paper eta kimikoekin

CANON BIDEOKAMERA DIGITALAK



JVC BIDEOKAMERA DIGITALAK



OLYMPUS ARGAZKI KAMERA DIGITALAK



**KODAK ESKAINTZA:
PILA ALKALINAK ETA KARRETEAK**





Ordiziako Tabernarien Elkartea

*Zai zoriontsuak
guztioi!*

OIANGU
T A B E R N A
❖ ❖ ❖

ETXETXO
TABERNA



KOIOTE
Pub

TXIMISTA 
sagardotegia



MIAMI
kafetegia



Martínez
Jatetxea



OLANO
TABERNA



ALDASORO
Taberna - Jatetxea



Santanak ospatzeko garaia heldu da

Koadrila egunerako blusa armairutik atera, matutinarako mozorroa prestatu, danborradarako entseguak burutu, pilota partidetakozin boxeora-ko sarrerak eskuratu, aurten ezkondukoek dantzak prestatu, dantza, kontzertuak, txirrindulari proba eta beste hainbat gauza haur gazte, heldu eta hain gazte ez diren ordiziar zein kanpoko jende guztiak egin beharko duena jarraian datozen egunotan. Izan ere Santa Ana jaiak iritsi zaizkigu, umeen jaiekin aurrena eta helduentzako tartearrekin hurrena.

Jai Batzordeak egitarau oparoa prestatu du oraingoan ere. Aurten hainbat tabernari-
ren laguntza ere izan dute eta azkenok 'Doctor Deseo' taldea ekarriko dute uztailaren 19an. Txosna Batzordeak ere bere aldetik kontzertu pare bat prestatu ditu estaligabeko pilotalekuan izango duten gunean eskaintzeko. Santiago eguna osteguna izaki, zubi izango da Santa Ana eguna eta honek jende ugari hurbilduko denaren aurreikuspena egitea dakar berarekin. Deneztat ere hor duzue 10-11 orrialdeetan festetako egitaraua.

Gaztetxeko egitaraua

Uztailak 20: 16:00ean futbol txapelketa. Ondoren zuri-
to txapelketa. **23:00etan** Kontzertua 'Sobredosis de Mistol' eta 'Heller ber boy's'.
Uztailak 21: 18:00etan mus eta porra lehiaketa

Uztailak 24: 12:30ean txupinazoa. Ondoren triki-
potea herriko kaleetan barna. Gauean Afari alternatiboa Gaztetxean.

Uztailak 25: 18:30ean Juanlu Escuderoen "Trains-
potting" antzerki saioa. Gauean mozorro desfilea gaztetxean.

Aitor calvillo

58.000 boleto salduta

Salmenta errekor berria izan du aurtengoan ere hain sona handikoa den San Fermin zozketak. Maiatzarekin jarri ziren lehen boletoak salgai Txindoki Tabernan eta uztailaren 8a bitartean, 58.000 boleto saldu dira, inoiz baino gehiago (egungo salneurriarekin). Honela 19.330 euro lortu dira eta jakina bildutako kopuru horren %10 San Jose zahar etxerako izango da. Gai nontzekoa gastuak ordaindu eta saritarako erabili dira.

1.000 euroko saria 35.578 zenbakidun boletoa duenak jaso-
ko du, 600ekoa 29.225 zenbakidunak eta 300 eurokoa 15.638 zenbakidunak. Zenbaki saridun guztiak Etxezarreta Kaleko Txindoki Tabernan bertan daude ikusgai.

Malkasko zubian obretan

Aspaldiko proiektua zen Malkasko zubia berritzearena. Bada, azkenean lanak hasi dira eta egun erabat estu zegoen zubia zabaltzen ari dira. Lanek dirauten bitartean bidea itxita egongo da.

Eta lanekin jarraituz aipatu Enparantza Nagusiko lanak ia amaituta direla. Urte bete behar izan dute eta ondoren irailetik aurrera Kale Nagusiko lanak hasiko dira. Hau amaitzean herri-
gune guztiko zorua eraberritua izango da. Lanok egiten beste urtebete pasako omen dute eta orduan hasiko da berriro ere peria Enparantza Nagusian egiten.

Bustunmira txapeldun

Lehen finala zuen Bustunmira taldeak eta ederki aprobetxatu zuen, iazko talde txapelduna 2-leko emaitzaz hartu baitzuen mendean. Gorka Hernandezek Badago taldea aurretik jarri zuen, baina segituan "Titi"k berdinketa lortu zuen. Luzapena jokatu beharko zela us-
te zenean, falta jaurtiketa baten bidez J.M. Pecharromanek garaipeneko gola sartu zuen.

Honenbestez amaitutzat eman zen XXIII. Lagunarteko Futbol Txapelketa. Finalaren aurretik 3-4. postuak erabakitzeko neurketa jokatu zen eta bertan Urbitarte Sagardotegiak E.R. Matxain Ileapaindegia irabazi zion 3-leko emaitzaz. Txapelketako goleatzaile onenaren trofeoa Matxaineko Pedro Mari Goñi "Bolas"entzat izan zen eta golik gutxien jasotako atezainarena Badagoko Carlos Turrientesentzat. Beti Alai pilotalekuan elkartu ziren partaide guztiak eta festak ondoren herriko kale eta tabernetan zehar jarraitu zuen.

Gipuzkoako txapelketan bikain

Txindoki Atletismo taldekoak Donostian izan ziren joaneko ekainaren 8 eta 9an. Bertan emaitza onak lortu zituzten eta besteak beste garaipena eskuratu zituztenak aipatuko ditugu. 5 eta 3 Km. martxan Irantzu Egiguren, Jon Etxeberria 800 metrotan, Adur Ugartemendia saltu hirukoitzean eta Goikoetxea, Zudaire, Satrustegi eta Etxeberria 4x400 errelebo pro-

ban. Jose Antonio Blanco, Jose Javier Cuadrado, Joseba Caballero, Aitor Estala, Jon Aranburu eta Igor Auzmendi ere txukun aritu ziren euren probetan.

Aipatu baita ere Gotzon Auzmendi betera-
noak Gasteizen ekainaren 30ean lortutako lehen eta bigarren postuak 800 eta 1.500 metroko probetan. Ekainaren 1ean jokatu zen baita kadete mailako Euskadiko txapelketa Basaurin eta bertan Eñaut Gereñuk 100 eta 330 me-
trotan lortu zuen txapela jartzea. Etorkizun handiko gazteak dudarik gabe Txindoki A.T.ko ordiziar hau.

Raid zaldi proba

Joaneko asteburuan jokatu zen inguruko lur-
retan Euskadiko raid txapelketa. 80 Km. egin behar izan zituzten parte hartu zuten zaldi eta zaldi gaineok eta azkenean polemika izan zen. Lehena iritsi zenaren zaldiak pulsometroaren proban taupada gehiegi eman eta kalera-
tua izan zen. Gogoratu raid zaldi proba haue-
tan zaldia izaten dela garrantzitsua eta epai-
leak oso zorrotzak direla ibilbidean zehar dauden kontroletan. Zaldiak taupada arine-
giak baditu ezin du proban jarraitu. Bestalde jende dezente ikus zitekeen Ordizia, Lazkao eta Zaldibian. Alarpe zalditegiak antolatua ze-
goen proba eta iazko esperientzia ona ikusita animatu dira aurtengoa antolatzeko ere. Ziur aurrera begira gehiago izango direla.

Mikel Gaztañaga Espainiako txapeldun

Azken hilabeteetan ere emaitza onak lortzen ari da Mikel Gaztañaga herritar txirrindularia. Horien artean aipatzekoa da, errepideko Espainiako txapeldun berria dugula elite mailan. Bizkaiko Biran ere etapa baten garaipena lortu zuen. Zorionak Mikel!

Ordizian Santa Ana jaiaetako profesional mailako lasterketan ere parte hartzeko da bere taldekide diren Dioni Galparsoro eta Aitor Pereze-kin batera. Zorte on hiruoi!



labur-labur

- **Bide On**-ekoek merezitako oporraldia hartuko dute. Beraz, irailera arte ez dugu zine emanaldirik izango.
- **Batasunaren** ilegalizazioa dela eta, Espainiar Gobernuari protesta egin nahian, ekainaren 24tik 30era bitarteko astean, udal arduradunek bilera eta udal-harreman guztiak bertan behera utzi zituzten, plante instituzional bat eginik.
- **Batzorde eragileak** asteleheneroko bileretan eten bat egingo du udako oporraldia dela eta. Hurrengo bilera irailaren 2an iluntzeko 7,30etan izango da ohiko lekuan. Herritar guztioi bilera ireki hauetara agertzeko gonbidapena luzatzen dizuegu lerro hauetatik.

Udalak 2 etxebizitza errentan

Udalak, Kale Nagusiko 9. zenbakian (sendagile etxean) konponketa lanak burutu ditu, bi etxebizitza independente sortuz. Ekainaren 6an, egindako bilkuran berritutako etxebizitza hauek herritarrei eskaintzea erabaki da eta kontratazioa arautuko duten baldintzak onartu dira.

Errentan emateko prestatu diren etxebizitzak, beharrenda dauden Itsasondoko familiei, funtzio sozial bat bete nahirik, prezio egokian ematea da helburua. Hilabeteko 180 edo 120 euro ordaindu beharko da alokairuan onartuz gero.

Bete beharreko baldintzak

- Itsasondon erroldatua egotea, eta bertan bizi izatea gutxienez urte beteko epean.
- Lehen etxebizitza izatea eta alokatutako etxean bizitzera hitzematea.
- Teknikoki etxebizitzaren baldintzarik ez duen batean bizitzea. Kasu honetan, jabeak uko egin beharko dio etxea errentan jartzeari.
- Maizter izanik, etxea utzi beharrenda egotea edo desjabetze bidean dagoen etxean bizitzea.
- Beste etxebizitza baten titularizazioa ez izatea jabetzan nahiz dohaintzan.
- Euskaraz hitz egitea baloratuko da.

Udalak esleitzeko orduan puntuaketa baten arabera hartuko ditu erabakiak, langabezia egotea, seme-alabak izatea, gaztea izatea... baloratuko direlarik.

Eskaerak aurkezteko epea abuztuaren 5 artekoa da. Intere-saturik dauden herritarrak udaletxetik pasa daitezela informazio gehiago jasotzera.

Iraolako pista berritu da

Udaletxeko teknikariek herriko pisten egoera aztertu ondoen, egoera larrienean zegoena konpontzea erabaki da. Toki-Goxotik Hermintzaraino doan pistan konponketa lanak amaitzeaz daude, uztailean zehar enbreatuko baita. Bertako bizilagunek zeharkatzen zuten bakoitzean jasaten zuten arriskuagatik eman zaio lehentasuna pista honi.


Leire Telleria - Edurne Ayuso

URBITARTE tolare sagardotegia



Erretegi modura zabalik
Sagardoa txotxetik dastatzeko aukera
Tel.: 943 18 01 19
Ergoiena Auzoa ATAUN

IBAI ONDO



AROTZEGIA instalazio berriak

Altzariak neurritan
Mota guztietako arotzegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

Logela, egongela eta sukaldeko altzari
nahiz osagarrietan aukera paregabea

☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47
Poltsikoko telefona: 639 631 640
Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

UNTXUNDEI garajea

OSINALDE karrozategia

☎ 943 88 28 21
☎ 943 16 07 06
ORMAIZTEGI

Alberto Aierbe

"Zegama-Aizkorri maratoia arrakasta izan da"

Alberto Aierberi, Zegama-Aizkorri maratoiaren alderdi teknikoaren arduradunari elkarriketa egin diogu.

**Zegamako Udala frogako antolatzaille ofiziala izanik, laguntzaileen artean Amezti Mendi Elkartea egon da. Badakigu antolakuntza teknikoan ardurua nagusia zue-
na izan dela. Zein izan da zure betebeharra I. Zegama-Aizkorri Maratoian?**

Nagusiki ibilbidea diseinatzeari, neurtzei, kontrolak eta jan-edan lekuak kokatzeari. Seinalamendua antolatzea eta nola egin behar den erabakitzea. Ibilbideko laguntzaileen lanak koordinatu eta zein izan behar zuten agertzea. Baita, korrikalariei ematen zaien bezperako bilera teknikoak, prestatzea eta gauzatzea.

Ibilbide erakargarria diseinatu dela esan genezake. Non egon daiteke sekretua? Bazter guztiak ondo ezagutzean?

Mendia ondo ezagutzea oinarritzakoa da. Ondo ezagutu gabe ez dago diseinatzerik. Beste argudio bat izan liteke, korrikalarien ikuspegitik begiratzea, nik behintzat hori egin dut, baita ere ibilbidea begiratzea, ibilbidea ere orekatsua izan behar du, hau da baldintza guztietako korrikalarien-tzakoa modukoa.

Zein izan da korrikalarien aldetik jaso duzun inpresioa, zenbat lagunek parte hartu dute?

220 korrikalari izan genituen irteeran. Hauetatik 201 iritsi ziren 8 orduz azpitik helmugara, eta ia denak zoriontzen

gintuzten, bai ibilbideagatik eta baita giro edo ambienteagatik. Espainia erdiko edo hegoaldeko korrikalariak liluratu geratu ziren paisaiarekin. Hori zioten behintzat.

Froga jokatu ondoren hausnartarako garaia etortzen da. Zer esan dezakezu?

Hitza "arrakasta" izango litzateke. Hor ez dago zalan-tzarik. Giroak ere lagundu zuen eta bai korrikalariak, bai herritarrok, bai antolatzailleak, eta bai alderdi guztietatik etorritako mendizaleek, hitz hori erabili zuten edo genuen. Hala ere, beti egin litezke gauzak hobeto eta horretan saiatuko gara.

Datorren urtean jarraipena izango al du Zegama-Aizkorri maratoiak?

Udalak printzipioz urtero antolatzeke asmoa du, Aizkorriko Lagunen Egunearekin.

Bitxikeriaren bat ba al duzu kontatzeko?

Aipatzeko modukorik ez, nik behintzat; izango ziren baina. Pozteko datu bat bai. Inork ez zuela minik hartu, harrigarria baldin bada ere.

Badakigu froga aurreko astea opor hartu duzula antolakuntza teknikoko azken lanak egiteko. Zenbat aldiz egin duzu maratoiko ibilbidea?

Errege bezperan egin nuen osorik. Zatika askotan, diseinatzerakoan, neurtzerakoan, seinalatzerakoan etab. Kontua galdua daukat.

Zer esan nahi du Aizkorri zegamar batentzat?

Bertan jaio, hazi, eta bizi garenontzat, gure barruan daukagu. Gure senan dagoela esango nuke. Egutero ikusten ditugun gauzarekin gertatzen dena. Gure bizitzako parte bat da eta ez txikiena. Mendi bat denez maitatu egiten dugu.

Zer iruditzen zaizu irabazleak egin duen denbora? Zuen aurreikuspenetan sartzen zen?

4 ordu eta 14 minutuetan egiteko atleta izugarria izan behar da. Eguraldia aproposa



izan zuten, markak egiteko modukoa. Hala ere oso denbora ona da. Irabazleak 4 ordu t'erdian egingo zuela pentsatzen genuen baina ordu laurden bat gutxiago behar izan zuen Juan Martin Tolosa amezketarrak.

Eduarne Albizu

Uztailak 23: zinea aire librean

Datorren asteartea, uztailak 23, Udaletxeko arkupeetan zinea izango dugu gaueko 10etan Kultur Etxeak antolatuta.

Uztailak 31: San Inazio eguna Urbian

Datorren uztailaren 31n, San Inazio Eguna izango dugu eta urtero bezela Gipuzkoa eta Arabako Partzuergoko Batzordeak Festak antolatu ditu.

Egitaraua: 11:30ean: Meza Santua, bertan bertsolariak Jaunari eskaintza eta eskaera egingo diote, Urbiako artzain eta mendizale guztien izenean.

12:30ean: Hamaiketakoa. Nahiko txorixo, ogi eta ardo egongo delarik nahi duten guztientzat.

Ondoren Herri Kirolak eta Korrika lasterketak. Bazkari aurre eta ondoren, guztion atseginerako Segurako Trikitilariak.

Aizkorriko meza

Abuztuko lehen igandean ematen da urtero Aizkorriko Santa Kruz Ermitan meza, aurreko abuztuaren 4an egokituko da. Meza ondorenean, hamaiketakoa eskainiko du Zegamako Udalak.

San Bartolome jaiak

Oporrei bukaera emateko Zegaman San Bartolome jaiak izaten ditugu eta aurreko, abuztuaren 23tik 26ra izango dira. Herriko tabernari eta txoznek berriz abuztuaren 31rako ere zenbait jardura antolatu dituzte.

Alegin Madalena jaiak

Uztailak 20, larunbata

21:00etan: herri afaria trikiti-xaz alaiturik.

23:00etan: Etxabe Anaiak taldearekin dantzaldia.

Uztailak 21, igandea

12:45ean: Meza.

Ondoren bertsolari gazteen saioa.

17:30ean: Iparraldeko herri kirol erakustaldia: lasto altxaketa, orga jokoa, junkura jokoa, zorroa...

19:00etan: pilota partidak: 1. Ormaiztegiko pilota eskolako haurrak. 2. Castellanos-Olarran bikotea Elizegi-Mitxele-naren aurka.

Uztailak 22, astelehena

12:00etan: Meza nagusia

Ondoren Gabiriako Goruntz dantza taldearen saioa. Hamaketakoa Zelai-ondo elkar-teen.

17:00etan: umeentzako ekin-

tzak: gazteluak, puzgarriak, motor pista, marrazki taillera...Parte hartzaileen artean opari bereziak banatuko dira. **Gauean** Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia.

Sendagilearen oharra

Oraintsu arte herriko sendagile zen Virginia Ruiz de Egin doktoreak hemengo kargua utzi egin duela jakinarazi du ohar baten bidez. Iruñeko Virgen del Camino erietxean izango du lanpostu berria, eta Altsasun jarriko da bizitzen familiarekin. Oharrean dioenez, aldaketarena erabaki zaila izan da, arrazoi askok eraginda hartutakoa. Virginiak utzitako lekua Ricardo San Vicente doktoreak hartuko du.

Lan istripua

Pasa den uztailaren 9ko arratsak albiste beltza ekarri zuen

- ### Labur-labur
- **Balentzategi herri eskolan** datorren ikasturterako zaintzaile bat behar da eguerdietan lan egiteko. Bazkalondan eta eskolak hasi arte haurren begirale izatea litzateke zeregina. Interesatuek guraso batzordera jota izango dute xehetasun gehiago.
 - **Elizaren kanpoko hormetan berrikuntza lanak** burutzen ari dira. Harri tarteak pikatu ondoren itxura berria emango zaio eraikuntzari. Lanek bizpahiru hilabete iraungo dute.
 - **Uztailaren 27an egin zen frontoiaren berrinauguraketa.** Egokitze lanak amaitu ostean eraberrituta, irekita dago berriro erabiltzaile guztientzat. Izen ofiziala ere ipini zaio: Alkain-buru pilotalekua.
 - **Landetako Ander Geresta** Azurmendiri 12 urterako espetxe zigorra ezarri dio Frantziako justiziak, jendarme bati tiro egitea egotzita. 2000ko maiatzean jazo ziren gertaerak, eta ordudunik preso dago Fresnesko kartzelan.

gabiriarrontzat zein inguruko herritarrentzat; zoritxarreko lan istripu batean Urkiolako Josu Arratibel larriki zauritu zen. Goizaldean hil zen Donostiako ospitalean. Izugarriko samina eta ezin-sinetzia eragin du gertaera tamalgarri honek, Josuren galerak utzitako hutsunearen pareko. Azken agurrean Gabirian bildu zen jendetza horren adierazle.

zen Aztiriko gainean aurtengo jaien egitarauko zatirik mardulena. Atzo, Santa Marina egunarekin eman zaie bukaera. Oro har berrikuntza handirik izan ez bada ere, urteroko festa giroari eta herritarrentzat izan ohi duen xarma bereziari eutsi zaio. Jendearen harrera ere oparoa izan da, ekintzetan ikusle edota parte hartzaile moduan present izanez.

Aimar Maiz

Aztiriko festak

Aurreko asteburuan ospatu

Herriko jaiak

Abuztuak 14, asteazkena:

16:30ean: Suziri eta kanpaik festen hasiera iragarritz.

Goiz eta arratsalde, Biribilketa baserri herriko txistulariekin.

17:00etan: Kodrilen arteko futbol partidua.

22:00etan: Bertsolari jaialdia, Parrokiko antzokian.

Gauean: Erromeria Leire eta Itxaso taldearekin.

Abuztuak 15, osteguna: Andra Mari eguna:

11:00etan: Meza nagusia.

12:00etan: Ardi latxa esnearekin eginiko gazta eta baserriko ogiaren dastaketa.

12:15ean: XI. Ormaiztegitik Gabiriarako txirrindu igoera.

18:00etan: Dantza jaialdia, frontoian, Goruntz dantza-taldearen eskutik.

Ondoren: Pilota partiduak.

18:30ean: Bola eta toka lehiaketa.

Arratsalde eta gauean, Urgabe musika taldearekin dantzaldia eta mozorro dantza.

05:00etan: Baratzuri zopa, Erbie elkartean.

Abuztuak 16, ostirala: San Roke eguna:

11:00etan: Meza nagusia.

Ondoren, herriko Goruntz dantza-taldeko gaztetxoaren saioa.

16:00etan: Umeentzako parke erraldoia.

17:30ean: Ume jolasak eta mozorro dantza.

18:30ean: Bola eta toka lehiaketak.

19:30ean: Sagardo eta txistor dastaketa.

21:30ean: Koadrilen arteko afaria Ostatu jatetxean.

Gauean, Trikizio taldearekin dantzaldia.

05:00etan: Baratzuri zopa, Osinalde elkartean.

Abuztuak 17, ostirala: San Roke Txiki eguna:

11:00etan: Meza, herrian hildakoen alde.

12:00etan: XXI. Tiragoma txapelketa.

12:00etan: Bola eta toka herritarrentzat.

18:00etan: Ardo beltza, herriko zagiardotik.

Arratsaldean eta gauean, Joselu Anaiak.

Abuztuak 18, larunbata:

17:00etan: Herria txukundu, eta ondoren, lanean aritu diren guztientzat afari-merienda.

URDANETA KHAF harategia

Kalitate hobeak!

Prezio berean!



Kalitateko
Haragi
Fidagarria



*Jai zoriontsuak
pasa guztiok!*

Urdaneta 25
943 16 15 14
ORDIZIA





GOIHERRI, S. L.
Iturgintza

Urdaneta 24
943 88 11 57
ORDIZIA

*Festa zoriontsuak
opa dizkizuegu denoi!*

Sanitarioen instalazioa
Iturriak
Bainuko altzariak
Berogailu eta Gasa





15etik 20ra izan ezik



Abuztuan irekita



JOS-BEL

ILEAPAINDEGIA

© 943 88 82 52

Urdaneta, 15

ORDIZIA

ZUTIKAKO
SOLARIUMA

ILEARENTZAT
TRATAMENDUAK

ORRAZKERA
BEREZIAK

KOSMETIKA
OSAGAIK

MAKILAJEA,
MANIKURA

Jai zoriontsuak denoi!

- ✓ Keramika erakusketa eta salmenta.
- ✓ Bainuak, kanilak eta osagarriak.
- ✓ Bainugelarako altzari ugari.
- ✓ Sauna-kabinak eta hidromasaia-bainuak.
- ✓ Tximiniak, ikatz eta egur sukaldeak.
- ✓ Iturgintza, gasa eta berogailuak.
- ✓ Igeltseritza orokorrean.



AUSO EGI

ITURGINTZA

Urdaneta Kalea, 41

Tfnoa. eta faxa:
943 88 95 76

ORDIZIA



Badajozetik bueltan

Ekaineko alean adierazten genuen moduan, Zaldibiako Areto Futboleko infantil mutil taldea ekainaren 16tik 20ra Badajozen jokatu ziren Espainiako Txapelketan EAEko ordezkari moduan aritu zen. Hiru egunetan sailkapen partiduak jokatu zituzten Astu-

rias, Galizia, Murtzia eta Aragoiko ordezkarien aurka. Ez zuten partidu bat bera ere irabazi. Hala ere, oso ondo pasatu omen zuten. Espero dezagun datorren urtea aurtengo bezain oparo izatea. Animo, beraz!

Labur-labur

Aratz eta Ibon txapeldun

Aratz Mendizabal eta Ibon Gurrutxagak Añorgako pilotari txapelketa irabazi zuten joan den igandean, hilak 14, etxeko bikotea, Erroizenea eta Argote, 22-17 mendean hartuta. Zorionak!

Joxepane enbargatuta

Joxepane Herri Ostalua enbargatuta dago joan den ostiralaz gozotik, hilaren 12tik, Garzon epailearen aginduz. Momentuz enbargoaren berri besterik ez da jakin.

Kultur Etxea abuztuan itxita

Kultur Etxea abuztuan itxita egongo da. Beraz, ez da ez ludoteka ezta liburutegi zerbitzurik eskainiko. Irailaren 2an itzuliko da Lurdes lanera.

Festetako bilera, irailaren 5ean

Maiatza eta ekainean zehar zenbait bilera egin badira ere, festen nondik norakoak erabat zehazteko daude. Hori dela eta, irailaren 5ean, arratsaldeko 7,30etan, Liburutegian egingo den bilera irekian parte hartzeko deia egiten dizue Kultura Batzordeak herritar guztie.

Ondo pasa oporretan

Irailaren 6a arte ez duzue zuen eskuetan Goierritarrik izango. Badakizue, oporrak. Abuztuan giro beroa egin behar omen du Euskal Herrian. Ahalik eta hobetona pasa!

Zaborra dela eta...

Zaldibiako Udalak herritarrei igorri nahi dien kontu bat da honakoa. Udalaren arabera, herriko zenbait jende ez du errespetatzen zaborrak kalera ateratzeko ordutegia, hainbat usain sortu eta herritarren artean kexua eta haserre piztuz. Jarrera hori dutenek bizilagunekiko duten begirune falta ikaragarria azpimarratu nahi du Udalak. Batik bat, Kultur Etxe aurreko eta Mariaundiñe pareko bilguneetan azaltzen omen dira zabor-poltsak ordua baino lehenago. Hala, herritar guztiei zera gogorarazi nahi die Udalak: zaborrak arratsaldeko 8ak ondoren atera behar direla kalera. Hala izan bedi!

Iñaki Gurrutxagua - Saroi Jauregi



ONGI ETORRI
taberna - jatetxea

Eguneroko menua
eguerdi eta gauetan
larunbatetan ere bai

Afariak
bataioak
jaunartzeak

Tel: 943 88 99 07
Oriamendi, 40 BEASAIN

Alpe
SUKALDE ALTZARIAK

sukalderik goxoenak

Marlarats 10 Beasain
Tfno/Fax 943 88 86 84

Opor giroan

Eguraldia guk nahi bestean lagun ez badugu ere, udako oporrak iritsi zaizkigu eta aurreko urteetan bezalaxe aurtengoan ere Santi Etxeberriaren ardurapean dagoen Kultura eta kirol sailak ikastaro desberdinak antolatu ditu uztaileko, nahiz eta ale hau kaleratzen denerako gehienak bukatuak izango diren. Hone-la, eskalada ikastaroan 5 lagun ibili dira, 7 arku tiraketan eta 8 piraguismoan eta beste horrenbeste espeleologiako ikastaroan. Bestalde, aurtengo berrikuntzen artean aipatzekoa da 4-8 urte bitarteko haurrentzat antolatu diren jolasak hil honetarako. Horietan 27 umek hartu dute parte.

Labur-labur

Joan den astean bi heriotz izan genituen herrian, Astigarragako Barberoneko Miren Urrestarazu Munduate eta Ergoienako Etxe-Berriko Bixente Begiristain. Doluminak bi sendiei.

Azkenik, datorren ikasturtera arte agurtu baino ez. Le-rook aprobetxatu nahi nituzke txoko honen osaketan urte guztian zehar laguntza eskaini didaten kolaboratzaile finei eta bide batez, irakurle zaren guztioi ere. Ondo izan eta hurrenarte.

Agurtzane Bikuña



Zaharkinak erakusketa

Ekainaren 16an inauguratu zen zaharkinen erakusketari joan den uztailaren 14an eman zitzaioan amaiera. Herriarren borondate onari esker antolatu den erakusketa honetara inguratu zarenok hainbat eta hainbat tresna interesgarri ikusteko aukera izango zenuten, hilabete askotako lanaren emaitza. Horrelako ekimenek zenbaterainoko mirespena sortzen dutenaren erakusgarri dira erakusketa itxi baino astebete lehenago izandako 1500 inguru bisitariak. Datu bat, horietarik gehienak kanpotarrak izan omen dira, "errementariaen etxean zurezko goilarea" dioen esaera egia ote? Bide batez, gure esker ona tamainako erakusketaren antolaketan parte hartu duten guztiei.

San Pedro jaien ondorenak

Dagoeneko ahaztu samartuta ere baditugu 2002ko San Pedro festak baina ekitaldirik nabarmenenak aipatu nahi genituzke.

Ostiralean, txerriaren jaisieraren ondoren sagardo dastaketarekin eman zitzairen hasiera eta aurtengo jendetza handia gerturatu zen 26 sagardotegi desberdinen sagardoa probatzera. Urtetik urtera sona handiagoa hartzen ari den ekitaldia dugu hau.

Hurrengo egunean sega apustuak sortu zuen ikusmira. Azken hiru urteetan bezala, herriko lau gaztek, Bekotxe,

Xefe eta Iparre eta Zabalok norgehiagoka bikaina jokatu zuten Odio aldeko zelaletan. Alde handirik gabe, 13 kilo besterik ez baina, azkenean Bekotxe eta Xefek irabazi zuten aurtengo saioa. Lehenengo bikoteak 1571 kilo belar moztu zituen eta bigarrenak 1658. Lauroi ere zorionak, festa egunetan bete-betean horrelako ahalegina egin izanagatik.

Azkenik igande arratsaldean pilota partidak eta herri kirolak izan genituen, plaza gainezka egon zen aizkoran, lasto altxatzen eta harri jasotzen aritu zirenak ikusteko.

Besteak beste harri altxatzen Saralegi izan genuen 280 kiloko harriarekin.

Egitarauetan agertu ez bazen ere, azpimarratzekoa da udaletxearen gaineko lokale-tan egon den eskulan erakusketa ere, urtean zehar herriko eskulan taldeak egin dituen lan desberdinak egon dira ikusgai eta horrekin batera baita Tere Arruabarrena herriko margolariaren lanak ere. Benetan lan politak egon dira. Zorionak eta segi horrela.

Lehiaketetako irabazleak

Bola lehiaketan, Jokin Izagierre segurarrak irabazi zituen larunbateko eta igandeko saioak eta horrekin batera baita sailkapen orokorra ere. Herriko saria Martin Aranbururentzat izan zen.

Jubilatuen eguna

Uztailaren 21ean izango da aurtengo jubilatuen eguna. 12:30ean izango da meza Lierniko Andre Mariaren elizan eta ondoren bazkaria Mujika jatetxean.

Tokan berriz, Milagros Zapirainek irabazi zuen emakumeetan eta Jose Maizek gizonezkoetan.

Patata tortila lehiaketan, Iñaki eta Juanita Murgiondo izan ziren aurtengo tortilarik onena egin zutenak.

Tonbolako sari bereziko zenbakia 285 da. Zenbaki hori duenari bi afaritarako txartela emango zaio.

Iñaki Ugaldé

Oiar-te nekazalturismoa

Uztailaren 16an ireki zen Oiar-te nekazalturismoa. Baserri zaharberritu honetan 6 logela bikoitz beren bainuge-lekin prestatu dituzte, haue-tatik 1 ezinduentzat egokitua eta 3 hirukoitzak egin daitez-keenak. Paraje ezin hobean eta ikuspegi bikainarekin, he-rritik 10 minutura oinez da-go-en nekazalturismo hau M^a Luisa Urrestarazuk ireki du eta bertako telefono zenbakia 680171291 da.

Urtekaria

Aurten ere martxan da jada-nik urtekaria. Urtero bezala abuztuaren 14ean izango da salgai. Ohi den bezala aurten-goan ere urteko hainbat pasa-dizu kontatuko dira bertan, baita ere beste hainbat lagun-tzaileen kontuak.

Dordogna

Dordogna eta Zerainen arte-ko harremanakin jarraituz, Uztailaren 22 tik 26ra Dor-dognako gazte talde bat izan-go da Zerainen. Harizti Erdi

aterpean pasatuko dute astea, inguru hauek ezagutu eta ber-tako gazteekin egun pasak eginez.

Mandioa

Abuztuaren 1ean, iluntzean, irekiko da berriro Mandioa taberna, Zegamako Eider La-rreak zuzenduta, laguntzaile bere ama M^a Luisa Mujika



izango du, orain arte bezala lan egiteko asmoa dute. Eider eta M^a Luisaren izenean, Abuztuaren 1ean, iluntzean

denak gonbidatuta geratzen zarete.

Mari Flor Mendizabal

Andra Mari jaiak

Abuztuak 13, asteartea:

20:00etan: Ohiko gibel jatea Litzormendi elkarteak

Abuztuak 14, asteazkena: Andra Mari bezpera:

12:30ean: Herriko gaztetxo-en arteko futbito txapelketa-ren finala.

16:00etan: Haur jolasak

18:00etan: XI.Andramari pala txapelketaren finala.

20:00etan: Kanpai bueltako-ak eta suziriak festei hasiera

emateko

23:00etan: Haur eta helduen danborrada.

Ondoren eta goizaldera arte. Bigira taldearekin dantzaldia

Abuztuak 15, osteguna: Andra Mari eguna:

09:00etan: Txistularien goiz eresia etxez etxe.

11:00etan: Meza nagusia.

12:00etan: Txakolin dasta-tzea herriko plazan.

17:00etan: Andramari bola txapelketaren hasiera.

19:00etan: Herri kirolak.

23:00etan: Triki-zio taldeare-kin dantzaldia.

24:00etan: Asto lasterketa.

Abuztuak 16, ostirala: San Roke eguna:

09:00etan: Txistularien goiz eresia etxez etxe.

12:00etan: Meza nagusia.

Ondoren, herriko agintarien Soka dantza.

17:00etan: Andramari bola txapelketaren azken saioa.

20:30ean: Herri afaria Liza-só eta Lazkano bertsolarie-kin.

Ondoren, mo-zorro gaua. Muxutruk taldearekin dan-tzaldia. arete.

Zeraingo Udalak Andramari jai onak opa dizkie herritar eta kanpotarrei



ZERAINGO UDALA

Abuztuko egun horiek oso apro-po-sak izan daitezke bertako txoko, ibil-bide eta altxor historiko-artistikoak ezagutu ahal izateko.

Zatoz, gonbidaturik zaude.



34 ordu Idiazabalen

Izenburu hori jarriko lioke behar bada, uztailleko lehenengo asteburuan, Paristik Marokora zihoazela Idiazabalen autobusa hondatu eta egun eta erdi bertan pasatu beharra izan zuten 40 marokoarretako batek.

Autobusa, San Fermin egunean, goizaldeko hiruretan geratu zen ez aurrera ez atzera Etxegarateko lehenengo maldan. Autobusak matxura handia zuela ikusita, bidaiariak Kiroldegira eramatea erabaki zuten. Beasaingo Gurutze Gorria eta Udaletxeko ordezkariak elkarlanean aritu ziren. Gurutze Gorrikoek eskerrak eman nahi dizkie Rachida eta Jesus Santurde boluntarioei, eta Udalari.

Bidaiariak, lehenbailehen Marokorako bidetara berriro heldu nahi zioten. Autobus gidariak, igande gauerdian, Paristik beste autobus bat iritsiko zela agindu zieten. Esandakoa ez zen bete, eta 40 lagunak, gehienak emakume-

an eta haurrak, Kiroldegian eta Pilarrenean pasatu zuten gaua. Azkenean, astelehen eguerdian iritsi zen autobusa eta orduan ekin zioten berriro ere bidaiari.

Duela hilabete batzuk antzeko gertakaria izan zen. Orduan bidaiariak denbora gutxiago eman zuten eta pilotalekuan egon ziren.

Tenis txapelketa

Uztailaren 1ean hasi zen txapelketa jokatzeko eta gaur, uztailak 19, arratsaldeko 7etan izango da Tenis txapelketaren finala. Hurrengo urtera begira, Kiroldegi ondoko tenis pista handitzeko aukera aztertzen ari dira parte hartzaileak eta antolatzaileak.

Kiroldegia itxita

Uztailaren 31tik irailaren hasiera bitartean Kiroldegia itxita egongo da. Oporrak hartu bitartean, astelehenetik ostiralera, goizetan 10:00etatik 13:00era eta arratsaldetan



VII. Triatloia

Udako oporrak hartzerako, ohitura bihurtu da Kiroldegiak antolatutako triatloia egitea. Aurtengoa, uztailaren 23rako (asteartea) antolatu dute, hala ere antolatzaileak hurrengo egunera, hilaren 24ra atzeratu ala ez aztertzen ari dira.

Arratsaldeko 7etan hasiko da froga hirukoitza. Igeri, korrika eta bizikletan bete beharko da ezarritako ibilbidea. Zazpigarren edizio honetan aurreko urteetako ibilbidea errepikatuko da.

Ondoren, parte hartzaileek otarteko jana egingo dute plazako kioskoan.

6,30etatik 9,30etara egongo da zabalik.

larreneako lorategian. Eguraldi txarra egiten badu, emanaldia ganbaran izango da.

Xabier Urteaga

Gitarra kontzertua

Javier Arrillagak kontzertua eskainiko du gaur, uztailak 19, arratsaldeko 7,30etan Pi-

Gaztelu

- Iturgintza
- Berogintza

Mendi-Ondo etxea
☎ 943 88 40 57
ZALDIBIA

Esteban Lasa, 7
☎ 943 88 80 29
BEASAIN

mazda
Bikar, S. A.



☎ 943 889 296 Faxe: 943 887 952
N-1 errepidea, 419 Kma **BEASAIN**

VOLVO
TOYOTA



ŠKODA
Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN

Kirol eskolarraren amaiera

Kirol aniztasunean oinarrituz, lehiatze hutsaren gaintetik, heztea eta jolas eginez gozatzeta izan da helburua. 3., 4., 5. eta 6. mailako 50 ikasletatik 49 aritu dira 16 kirol ezberdinetan, urritik ekainera, Xabier Intxaustiren zuzendaritzapean. Neska eta mutil benjaminetan nahiz alebinitan, atletismoan eta krosean, areto futboleant, zazpiko futboleant, mendian, pelotan, mahai tenisean, saskibaloian, herri kirolean, igeriketan, tenisean, txirrindularitzan, xakean, eskaladan, beisboleant, sofboleant eta izotz irristaketan aritzeko aukera izan dute. Entrenatzaile eta laguntzaile



Donosti-Cupean izan den ohorezko taldea Goierriari den bakarra da. Argazkia: 'Txibi'.

Futbol kontuak

Donostia Cup

Uztailaren 1etik 6ra, Aizkorri futbol taldeko kadete eta ohorezko infantilek parte hartu dute. Kadeteetan Anaitz Goia, Urtzi Intxausti eta Gorka Gerriko herritarrak aritu dira eta ez zuten lehen fasetik pasatzerik izan. Infantiletan Borja Gereñu, Javi Rodriguez, Aitor Arostegi eta Endika Mantecon izan dira eta 36 partehartzaileetatik 8 aurrenekoetan sailkatu dira.

Aurrendenboraldia

2002/2003 denboraldirako lau taldeak nahiko osaturik daude. Taldeen aurkezpenak ondorengo egunetan izango dira. Jokatzeko interesa dutenak ager daitezela: **Errejonialak**, abuztuaren 19an, 19:30ean; **jubenilak**, abuztuaren 28an, 19:30ean; **kadeteak**, abuztuaren 20an, 18:30ean; **infantilak**, abuztuaren 30ean, 18:30ean.

Europako sega txapelketa maduran

2003ko abuztuaren amaieran jokatuko litzateke

Bi urtetik behin burutzen den txapelketa Euskal Herrian egitea proposatu eta, Euskal Herriko Almintza sega elkar-teak maduran burutzearena proposatu zion Segurako udalari. Udaleko hiru alderdiek proposamena ontzat eman ondoren, Europako gainerako partehartzaileei erantzunaren berri ematea falta da

Belar zelai egokienak

Almintza sega elkartekoek

modura aritutakoak eskertu nahi ditu Xabier Intxaustik, besteak beste, Inge Olano, Urtzi Intxausti, Asier Alustiza, Txetxu Ormazabal, Xabier Imaz, Javi Arnaez, Jon Korta eta Joakin Sarasola.

adierazi digutenez, N-Ien inguruan, ez da Euskal Herrian leku egokiagorik. Gainerako ordekek errepidez eta etxez hondaturik baitaude.

Nork azkarren ebaki

Sega modalitate honetan, ez du belar kilo gehiena ebakitzten duenak irabazten, belar sailak azkarren ebakitzen dituenak baizik. Europako 6-8ren bat herrialde nahiz eskualdek parte hartu izan dute. Talde bakoitza, gizon eta

emakume, 15 lagunek osatzen dutenez, 100 segalaritik gora arituko dira. Euskal Herriak parte hartuko duen 4. aldia da. Zubiberitik hasita, hiru bat hektarea beharko dituzte segarako. Udalak, lur jabeekin hitz egin beharko du eta ondoren sega eremua egokitzen joan beharko da, zelaiei tratamendu berezia emanaz. Txapelketa, harerak, desfileak eta abar kontuan hartuz, asteburu osoko ikuskizuna izango da.

Labur-labur

● **Goiko eskolatik Baratze pilotalekura pasabidea.** Diputazioaren baimena lortu ondoren, eskolatik frontoi berriera joango den bidearen lanak uztailean hasi dituzte. Bide hau aterpetxetik pasatuko da.

● **Etxe adosatuak.** Erbiola baserritik komentura dagoen gunean, 10 etxebizitza adosatuaren obrak hasi dituzte.

● **Jubilatu eta pentsionisten txangoa.** Uztailaren 23an Bizkaia aldera. Besteak beste, Loiuo aireportua bisitatu, Bilbon bazkaldu eta arratsaldean Plentzia eta Gorlizeko

kostara joango dira. Irteera: 8:30ean Jermanenetik.

● **Txirrindulari Elkarteen eskerra.** Urtean zehar laguntzaile izan diren guztiak eskertu nahi dituzte, besteak beste, etxe komertzialak, udala, irratia, egunkariak, bidegurutze arduradunak, auto gidariak...

● **Odol emanaldia.** Urteko bigarren izango da abuztuaren 24an, 17:00etatik aurrera osasun etxean. Odol emileen elkartekoek gazte jendearen falta sumatuz, hauek animatu nahi dituzte odola ematera ager daitezen.

Joseba Telleria



Segurako trikitilariak izango dira Urbiako egunean

Urbiako eguna

Partzoneriko udalek antolatuta, uztailaren 31n, San Inazio egunez burutuko da urtero bezala. Mezaren ondoren, Segura eta Zegamaren arteko herri kirolak jokatu dira. Bertaratzen direnentzat mokadutxo izango da. Segurako trikitilariak alaituko dute eguerdi partean.

III. Peña Beloki argazki lehiaketa

Peña Belokik eta Argizpi Argazkizale Elkartek, Beasaingo Udalaren babesarekin III. Argazki Lehiaketa antolatu dute, argazki eta txirrindularitza zaletu guztiei zuzendurik. Gaia txirrindularitza izango da. Zuri-beltzean eta koloreetan hiru argazki aurkeztu beharko dira egile bakoitzeko. Teknika eta aurkezteko moduaz askatasun osoa dago. Gehienez ere 30 x 40 cm.ko kartoiez sendotuta. Ez da argazki digitalik onartuko. Lanak jasotzeko azken eguna urriaren 26a izango da. Irabazleari 155 euro eta garaikurra emango zaizkio eta hiru garren sailkatzen denak ere



garaikurra eta 95 euro eramango ditu. Sari berezia emango zaio Joseba eta Gorka Beloki txirrindulariei ateratako argazki onenari. Lanak Argizpi Argazkizale Elkartera edo Basakana tabernara eramane behar dira.

Antzizar triatloi proba

Arriarango urtegiaren inguruan jokatu zen uztailaren 7an Beasaingo II. triatloi proba. 112 partaide izan ziren Antzizar triatloi taldeak antolaturiko proba honetan. Gizonezkoetan, Atletico San Sebastian taldeko Garikoitz Etxebeste nagusitu zen (1.52.02) eta emakumezkoetan Fortuna taldeko Doltza Gonzalez izan zen lehena helmugaratzen (2.15.43)

Kiroldegia abuztuan ere irekita

Antzizar Kiroldegiak atek irekita izango ditu abuztuan ere. Orduetegi berezia izango du ordea. Lanegunetan, 9:00etatik 20:00etara eta larunbatetan 9:00etatik 13:00etara. Jai egunetan ez da irekiko.

Irailetik aurrera kiroldegiko instalakuntzak erabili nahi dituztenek, eskaera uztailaren 31 baino lehenago egin beharko dute.

Beasaingo futbol taldeak bazkide kanpaina martxan jarri du

Denboraldi berriari ekin asmoz dagoeneko lanean dira Beasaingo futbol taldekoak eta bazkide berrien kanpaina ere martxan du jada eta jendea animatu nahi dute bazkide kopurua handitu dadin. Gazte eta jubilatuek 60 euro ordaindu beharko dute eta gainerakoek 96 euro. Interesa dutenek San Inazio kaleko 8. zenbakian dagoen Bilbao Aseguru etxetik pasa beharko dute lehenbai lehen.

Nekane Altuna

V. Igartza beka: 11 lan

Udalak, CAF enpresarekin eta Elkarlanean argitaletxearekin elkarlanean antolatu duen V. Igartza literatur sorkuntzarako bekara 11 proiektu aurkeztu dira. Denak ere, 35 urtez behetikoak izaki, bi liburu baino gutxiago argitaratuak dituzten idazleek aurkeztu dituzte. Orain, Unai Elorriaga, Jasone Osoro eta Xabier Mendiguren Elizegi epaimahaikideei dagokie erabakia hartzea. Irailaren 6rako emango da epaitza eta ondorengo egunetan egingo da sari-ematea. Alde batetik, iazko irabazleari, Unai Elorriagari sariaren bigarren erdia emango zaio bere idazlana entregatzearen truke eta bestetik aurtengo irabazleari lehen erdia emango zaio garaikurraekin batera eta urtebete izango du idazlana idazteko.

Informatika arlorako laguntzak

Beasaingo Udaleko Euskara-batzordeak, 2000. urtean hasitako bidea jarraituz, informatika-arloan euskararen erabilera sustatzeko, ondorengo laguntzak eskaintzen ditu:

- 1.- 2002. urte honen barruan, informatikako euskarazko programak erosten dituztenei diru-laguntzak. Horretarako, Beasainen erroldatuta egon behar da. Laguntza 60 eurokoa izango da eta eroslekuan egindako deskontu moduan gauzatuko da. Beasainen hornikuntza hori euskaraz egiteko hitzarmena sinatutako saltzaileak, Gosiystem, Chip's eta Montte dira.
- 2.- Web-orriak diseinatzean, euskarazko bertsioak ere egiten dituzten Beasaingo enpresa, merkataria edo erakundeei, 60 euroko laguntza emango zaie. Horretarako ezinbesteko baldintza izango da hizkuntza-arloan ongi idatzita egotea eta euskarazko bertsioak bere sarrera izatea. Hori lortzeko, Euskara-zerbitzuaren laguntza eskaintzen zaie diseinatzaileei. Diseinu-etxeen bidez gauzatuko da deskontu moduan.
- 3.- Kontabilitateko, gestioko eta gisako euskarazko aplikazioak erosten dituzten Beasaingo enpresa, merkataria edo erakundeei, 60 euroko laguntza emango zaie. Laguntza, erosten duten lekuan gauzatuko da deskontu moduan.

EGA. 2000ko 2. deialdia

EGA prestatzeko ikastaroa antolatu du Beasaingo Udal Euskaltegiak. Irailaren 2tik 30era emango dute ikastaroa. Matrikula egiteko azken eguna uztailaren 19a izango da. Euskaltegiko telefonoa, 943 028100 da eta helbide elektronikoa berriez, zuzendaritza@beasain.net.

Santiago Bidea bulegoa

Gipuzkoako Santiago Bidelagunen Elkartek bulegoa du Beasainen, erromes joan nahi dutenei laguntza eta argibideak eskaintzeko. Elkartek ostegunetan eskaintzen du zerbitzu hau 19:00etatik 21:00etara Igartzako Belen Ermitan. Santiago Bidea egiteko informazioa emango da aipaturiko lekuan eta gainera, gaiari buruzko hainbat argitalpen eskuratu ditzaie bertaratzen denak.



Emilio Sanchez Espainiako txapeldun

Fisikoki ez gaituak direnekin batera, Emilio Sanchez lazkaotarra ibili da Espainiako Txirrindulari txapelketan parte hartzen. Uztailaren 5, 6 eta 7an ospatu zen txapelketa hau Andaluzian eta bertan Emilio Sanchez lazkaotarrak, paper ezinhobea jokatu zuen, lehen postua eskuratuz.

Uztailaren 5ean, pistako neurketa izan zuten 40 txirrindulari parte hartzaile in-

guruk. Huelvako Bollullos del Condado herrian ospatu zen belodromoko froga hone-tan ordea, lazkaotarrak ez zuen zorte handirik izan.

Halere, hurrengo bi egune-tan ezinhobe ibili zen. Uztai-laren 6an, erlojupeko froga jokatu zen Carmonan, Sevil-lan. 25 kilometro inguruko lasterketan lehen postua lortu zuen Euskalteleko txirrindu-lariak. Eta hirugarren egune-



Emilio Sanchez lazkaotarra txapeldun maillota soinean duela. Berarekin, Santi Osoro, 'Muebles Ordizia'-ko zuzendaria eta Emilioren laguntzaile fisikoa. Txapelketa guztietara laguntzen dio Osorok Emiliori.

an, uztailaren 7an, errepideko lasterketan ere txapeldun sail-katu zen lazkaotarra. 60 kilo-

metroko etapa Costantinan, (Sevillan).

Oihana Sarasola

Abuztuaren ere ekitaldi ugari

Lehenengoz abuztuaren 6an, asteartea, bertozaleentzako zita dago Maizpideko zinema aretoan. Iluntzeko 9etatik aurrera, bertso traman arituko dira Maialen Lujanbio, Jesus Mari Ira-zu, Nerea Elustondo eta Aitor Sarriegi bertsolari gazteak. Gai jartzaile lanetan, berriz, Unai Elizasu ibiliko da.

Koldo Ameztoui ipuin kontalaria entzuteko aukera izango da hilaren 21ean, asteazkenean.

Santiago Gonzalezek abentura kutsua emango dio abuztuari, hilaren 27an. Maizpideko zinema aretoan 'Munduari itzulua 17 urtez, belauntzian eta familiarekin' ikusentzunekoa eskai-niko du.

Euskadi enparantzan kale zineman, Mothman misteriozko filma emango da abuztuaren 28an. Eta ostegunean, abuztua-ren 29an, berriz, Joseba Iparragirre eta Ander San Jose tri-tilariek alaituko dute gaua Maizpide euskaltegiko jangelan.



Barandiaran ZERAMIKAK



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72 Senpere, 7 BEASAIN



LADA
Ssang Yong
N-1, z/g
☎ 943 88 09 47

ARANDIA
Garaiea


AUTOEN KONPONKETA
Iurre Auzea
OLABERRIA

OSTEOPATIA

Jose Gisasola Dr. R.P.S. 213/97

- LUNBAGO, ZIATIKIA, HERNIA DISKAL
- ZERBIKALGIA, ZEFALIA, MIGRAINA, ARTROSIS.
- TENDINITIS, KIROL LESIOAK.

Eskatu ordua: ☎ 629 45 20 53
Andra Mari, 13 behea ezk. - BEASAIN



ondoeta

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51

Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

ALTZAIKUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

musika

GABIRIA:

Abuztuak 15, Urgabe, 23:00etan.

Abuztuak 16, Trikizio, 23:00etan.

Abuztuak 17, Joselu Anaiak, 23:00etan.

IDIAZABAL:

Uztailak 19, Javier Arrillagaren kontzertua, 19:30ean, Pilar-enean.

ORDIZIA:

Uztailak 19, Doctor De-seo, Plaza Nagusian, 23:30ean.

Uztailak 20, Sobredosis de Mistol eta Heller ber boy's, Gaztetxean, 23:00etan.

Uztailak 25, Mexikoko Nochistlango 'Los Perez' mariatxien kontzertua, Domingo Unanue plazan, 23:00etan.

Uztailak 26, Irungo Udal musika banda, Plaza Nagusian, 13:00etan.

LAZKAO:

Abuztuak 29, Joseba Iparragirre eta Ander San Jose trikitilariak, Maizpideko jangelan, 21:00etan.

ZERAIN:

Abuztuak 14, Bigira taldea, 24:00etan.

Abuztuak 15, Trikizio taldea, 23:00etan.

Abuztuak 16, Muxutruk taldea, 23:00etan.

zinea

LAZKAO:

Abuztuak 28, Kale zinema: Mothman: azken profesia'. Euskadi enparantzan, 22:00etan.

bertsoak

GABIRIA:

Abuztuak 14, Bertso jaialdia, Parrokiko antzokian, 22:00etan.

LAZKAO:

Abuztuak 6, Bertso trama. Bertsolariak: Maialen Lujanbio, J.M. Irazu, Nerea Elustondo eta Aitor Sarriegi. Tramagilea: Unai Elizasu. 21:00etan, Maizpideko zinema-aretoan.

ZERAIN:

Abuztuak 16, Herri afaria, Lazkano eta Lizaso bertsolariekin, 20:30ean.

antzerkia

ORDIZIA:

Uztailak 19, Ordiziako Urrup antzerki taldearen Carol Diazen 'Susie' lana, 22:15ean, Herri antzokian.

Uztailak 23, Kafe-antzerkia Barrenan, 22:15ean: Te-tratro taldearen 'Cirugia estetica' lana.

Uztailak 25, Juanlu Escuderoren 'Trainspotting' antzerki lana, Gaztetxean, 18:30ean.

Uztailak 26, Kale-antzerkia, 19:30ean: Trapu Zaharra taldearen 'Laugarren tenorea'.

berriz aranburu

ERROPADENDA

Nagusia, 8

☎ 943 88 04 53

BEASAIN

LOINATZ

Taberna
Jatetxea


Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN




SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTÓLOGA



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

ZUZENKI
AHOLKULARITZA

Abokatuak
Enpresen
asesoria eta
gestioa

 txekin

www.txekin.net

Etxebizitzaren salmenta:

Legorreta
Beasain
Orendain

Tel/Faxa: 943 162 393 e.posta: zuzenki@euskalnet.net Elozegi, 16 LAZKAO

ikus-entzunekoa

LAZKAO:

Abuztuak 27, 'Munduari itzulua 17 urtez, belauntzian eta familiarekin' ikus-entzunekoa, Santiago Gonzalezen eskutik, Maizpideko zinema-aretoan, 21:00etan.

pailazoak

LAZKAO:

Abuztuak 21, Koldo Ameztoi ipuin-kontalaria, Maizpideko zinema-aretoan, 21:00etan.

ORDIZIA:

Uztailak 26, Gari, Montxo eta Joxe Lontxo pailazoen 'Tutik ere clowns' ikuskizuna, Barandiaran plazan, 18:00etan.

bestelakoak

ORDIZIA:

Uztailak 24, Deabru Beltzak taldearen 'Les tambours de feu' ikuskizuna, alde zaharrean, 24:00etan.

dantzak

GABIRIA:

Abuztuak 15, Goruntz dantza taldea, pilotalekuan, 18:00etan.

ORDIZIA:

Uztailak 26, Ukraniako Zagrava dantza taldea, Domingo Unanue plazan, 22:30ean.

erakusketak

BEASAIN:

Irailaren 30era arte, Ars Lignae erakusketa, Igartza jauregian.

ZEGAMA:

Astebukaeretan, Ehungintza tailerraren erakusketa. Ordu-tegia: 11:00-14:00 eta 16:00-19:00.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Azpilikueta (Kale Nagusia, 18 - Beasain). 943 880152.
Uztailak 20-21: Jauregi (Santa Maria, 2 - Ordizia). 943 160949.
Uztailak 27-28: Urbizu (Kale Nagusia, 8 - Beasain). 943 880232.
Abuztuak 3-4: Larnaga (Kale Nagusia, 4 - Ordizia). 943 881828.
Abuztuak 10-11: Azpilikueta (Kale Nagusia, 18 - Beasain). 943 880152.
Abuztuak 17-18: Arriola (Plaza Nagusia - Ordizia). 943 882628.
Abuztuak 24-25: Cuesta (Nafarroa etorbidea, 39 - Beasain). 943 880587.
Abuztuak 30 - irailak 1: Atorrasagasti (Bustuntza auzoa - Ordizia). 943 882938.

ARRIETA

JATETXEA

☎ 943 88 00 02 OLABERRIA

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak

OTEÑE ERRETEGIA

Bazkari, afari eta edozein ospakizun
ingurune paregabean



Larraitz bidea

GAINTZA

☎ 943 88 98 48

KASTEK

AKADEMIA

2002.eko UDA

Tailerrak: irakurmena, idazmena, matematika

Datorren ikasturterako prestaketa:

- ✖ Euskara, ingelera
- ✖ Fisika, kimika
- ✖ Latina
- ✖ Matematika
- ✖ Testu komentatuak
- ✖ Maila eta gai guztiak

Selektibitatea, unibertsitateko prestaketa.

Unibertsitate maila

- ✖ Goierriko Unibertsitatea
- ✖ Psikologia, farmazia
- ✖ Enpresaritza
- ✖ Etab.

ikastekakademia@latinmail.com
http://usuarios.tripod.es/ikastek

☎ 943 160 120

Joan Iturralde, 5 BEASAIN

Etxebizitzak

salgai

- ➔ Idiazabalen etxebizitza salgai, garajearekin. 605735042.
- ➔ Ordizian etxebizitza salgai, Altamira kalean, estadio ondoan. 646246736.
- ➔ Ordizian etxebizitza salgai. 115 m². Duplexa. 3 logela, 30 m²-ko egongela, sukaldea eta 2 komun. 180.000 euro inguru. 605772822.
- ➔ Antzuolan, eraikitzen ari diren etxe adosatua salgai. 300 m². 657732833.

➔ Etxebizitza salgai Beasainen. Dena irekia. Erreformatu berria eta altzariekin. 943160977.

➔ Ataunen pisua salgai. Ekonomikoa. 943180106.

➔ Donostian, Groseko geltokiaren ondoan, etxea salgai. 2 logela. 659729135. Arratsaldeko 5etatik 9etara deitu.

➔ Ikaztegieta etxebizitza salgai. 107 m² eta garajea. Sukaldea, saloia, 4 logela eta 2 bainugela. 943084674 - 607085145. Iluntzetan deitu.

konpartitu

➔ Pisukide bat behar dugu Iruñean. Unibertsitatetik gertu. Izaskun. 653704551.

➔ Bi neska euskaldun behar dira Gasteizen pisua osatzeko. Pisu berria, berogailuarekin. Unibertsitatetik 5 minutu. 943800238 - 696302297.

➔ Iruñean ikasle pisu bat osatzeko neska bat behar da. 605752095.

➔ Madrilan ikasleekin etxea konpartitzen dugu. Mutil ez erretzaileak. 914090390.

errentan eman

➔ Apartamentua alokatzen da, Benicasimen (Castellon). Hondartza ondoan. 2 igerileku eta kirol instalakuntzak. Gehienez 4 pertsona. 678929221.

Lokalak

alokairuan hartu

➔ Ormaiztegin biltegia alokatu nahi dut. 943889900.

salgai

➔ Ataunen lokala salgai. 943180106.

➔ Beasainen lokala salgai edo alokeran. 2 pisukoa. Bakoitza 55 m²koa. Obra egin berria. 943889089.

Pabilioia

salgai

➔ Beasaingo Katea auzoan (17. poligonoa) pabilioia salgai. 170 m² eta entreplanta. Aldagelak eta elektrizitatea. Altuera ona. 943027065.

Negozioa

salgai/alokairuan

➔ Liburudenda alokatzen edo saltzen da Beasainen. 616698236.

alokairuan eman

➔ Jatetxea alokatzen da, jubilazioagatik. Bezero finkoa. Errendimendu ona. Pertsona arduratsua eta esperientziaduna eskatzen da. Informazio pertsonala. 676049931.

Animaliak

salgai

➔ Setter arrazako zaurkumeak salgai. Martxoaren 30ean jaioak. Ehizerako irrika eta parada ikustekoak. Basoan heziak. 943801806 - 656751603.

opari

➔ Bi hilabeteko katakume politik opari. Ardua handiko pertsonen. 943888171.

➔ Txakurkumeak opari. Hilabete ingurukoak. 943800084 - 615783362 (Bixente-Karmele). Eguerdik edo gauean deitu.

Bestelakoak

salgai

➔ 7 oktabadun Furs-tein etxeko pianoa salgai. Neurriak: 1380x500x1030 mm. 943086610.

➔ Bixkientzako kotxesilla salgai, bere gehigarri guztiekin. 943162384 (Labores Otea).

➔ Zumezko altzariak salgai. Egongelarako edo terrazarako. 943724272.

➔ Karabana salgai. Oso egoera onean. Abantzearekin. 943806123.

➔ Erriberriko edo Oliteko kanpinean dagoen movilhoma-a salgai. 6.000 euro. Aseguratua. 943884040.

➔ Esne tankea salgai. Alza Laval etxekoa. 200 litrokoa. 943884502 (eguerdik edo iluntzetan deitu).

➔ Gurdi denda salgai. Prezio interesgarria. 943885271. Iluntzetan deitu.

➔ TSW Evo-r Ilantak salgai. 16 ". Opel Astrarenak. Brigstone 205-50-16 kubiartak ere bai. 943187585 - 943801811.

➔ Astra GSi 16 V edo Astra GSi-rentzat Blis-tein amortiguadoreak eta eibach muelleak salgai. Oso denbora gutxi dute. 70.000 pezeta. 636070874.

➔ Gurdi-denda salgai. 3 logela eta abantzea. 943887122.

KEMEN KIROLAK



Zumalakarregi, 1
☎ 943 88 51 68
ORMAIZTEGI



ZEGAMA OKINDEGIA

*Eskuz egindako
ogi naturala*

☎ 943 80 10 66

Olaberria Kalea, 6 ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:

Beasainen: Montoia harategia, Erosle, Oskarbi, Haritza, Osiña.

Ordizian: Altamiran, Martina Bustuntzan, Osasun belardenda, Muño denda Urdanetan

Zegaman: Kooperatiba, Maria Jesusen denda, Arrondo.

Segurako Erosle, **Idiazabal**go Ahizpak eta **Ormaiztegi**ko Iñaki Erosle.

Ibilgailuak

salgai

➔ Saxo VTS autoa salgai, 15"-ko llantekin. Oso egoera onean. 649529510.

➔ Golf GTI autoa salgai, 16"-ko llantekin. Oso egoera onean. 649529510.

➔ Renault Super 5 autoa salgai. SS-W. Merkea. 943160013.

➔ BMW 325 TD salgai. 4 urte. Airbag eta abs. Trakzio kontrola. Klimatizatu digital independentea. 653727455.

➔ Derbi Senda-R 2000 motorra salgai. Egoera oso onean. 650250016.

➔ Yamaha FZR 1000 Exup motorra salgai. 95. urtekoa. 646308919.

➔ Mercedes Vito furgoneta salgai. Lo egiteko ekipatua. 629372199.

➔ Suzuki RGV 250 motorra salgai. Konpondu berria. Prezio onean. 607088769.

➔ Quad Yamaha warror 350 motorra salgai. 4 gurpilekoa. 98. urtekoa. 943187585 - 943801811.

➔ Montesa Gota 315R motorra salgai. 99 urtekoa. Egoera onean. 943766401 605712473.

➔ Yamaha XT-600 Trail motorra salgai. SS-AJ. Egoera onean. 943180461.

➔ Kawasaki GPX-600 motorra salgai. Egoera onean. 943766401 605712473.

➔ Honda CBR 600F motorra salgai. Oso egoera onean, ongi zaindua. 93. urtekoa. 653720774.

➔ Gas Gas Jt 32 motorra salgai. 350 m³. Oso egoera onean. 285.000 pezeta. 606206157.

➔ Opel Omega 2.5 TD salgai. Ondo zaindua. 12.000 euro. 619750314.

Lana

eskaerak

➔ Emakume bat behar da, 3 ume zaintzeko, irailetik aurrera, arratsaldetan. 605721107. 16:00etatik 20:00etara deitu.

➔ Idiazabalen emakume edo neska euskalduna behar da ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. 678724785.

➔ Pertsona euskalduna behar da, interna egoeran. 943651332 - 658707200.

➔ Astebukaeretan lan egiteko neska zerbitzaria behar da. Euskalduna. Esperientziaduna bada, hobe. Kotxea beharrezkoa. 943880044.

➔ Beasainen neska edo emakume bat behar da etxeko lanak egiteko. 943086590.

➔ Pertsona euskalduna behar da tabernan lan egiteko. Esperientziaduna bada hobe. 943886577 - 943160205.

➔ Sagardotegi batean bi langile behar dira: sukaldari laguntzaile bat aste gutzirako eta zerbitzari bat astebukaerarako. 943882049.

eskaintzak

➔ Hormigoizko eta egurrezko egiturak egiten dira. 629449460.

➔ Uztailen lan egingo nuke, umeak zaindu, etxeko lanak egin edo denda batean. 943886263.

➔ 18 urteko neska umeak zaindu (esperientziaduna) edo denda batean saltzaile gisa lan egingo luke. 653742370.

➔ 19 urteko mutila, edozein lanetarako eskaintzen da, udan. 637781384.

➔ Neska bat eskaintzen da haurrak zaintzeko. 606598100.

Langai

Euskal Lan Zerbitzua
Eusko Jaurlaritza

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

Goierriko Herrien Ekintza
943 884 401

ERREBABATZAILEA

Tolosan. Erref. 77644/5

2 TORNERO

Beasainen. Erref. 83550/6

INGENIARI TEKNIKO ELEKTRIKOA

Altsasun. Erref. 83690/4

ELEKTRIZISTA, 1. MAILAKO OFIZIALA

Altsasun. Erref. 83692/4

INGENIARI TEKNIKO ELEKTRIKOA

Altsasun. Erref. 83695/4

FABRIKAZIO MEKANIKOKO 5 LANGILE

Goierri. Erref. 83841/2

KARROZERI PINTOREA

Goierri. Erref. 84198/4

TORNERO ERREKTIKATZAILEA

Tolosan. Erref. 84361/2

INGENIARI TEKNIKO ELEKTRIKOA

Altsasun. Erref. 83690/4

ERRETROESKABADORA GIDARIA

Goierri. Erref. 84859/2

TRAILER GIDARIA

Goierri. Erref. 85299/5

JOAKIN ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak
filtroak, olioak, engrasea
frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
harezko txorrotadak

Errota Poligonoa

IDIAZABALgo sarreran

943 18 72 57



Iñauti
HORTZ KLINIKA

ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 ZIKI KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN 943 88 46 28



Ordiziako futbol txapelketa 1961ean

Zutik, ezkerretik eskuinera: Jose Antonio Calvillo (delegatua), Jesus M^a Giralt, Luis M^a Gonzalez, Imanol Gorrotxategi, Angel M^a Argiñano, J. M^a Martin eta Ignazio Alonso.

Pikotxean, ezkerretik eskuinera: Urretabizkaia, San Jose, Migel Angel Lamata, Angel Lamata, Justo Ezeiza eta Juan Luis Mendizabal.

ORLEGI **JAIK ONDO PASA**

TABERNA **ETXEZARRETA, 3**
ORDIZIA

KIRKIL
PUB

ORDIZIA

HERRIKOA TABERNA
Pintxo mundialak
Giro abertzalea

Elkano Kalea **ORDIZIA**

Festa onak pasa!

sugaar
TABERNA

Elkano kalea, 11 ORDIZIA 943161958
www.galeon.com/sugar

Jai zoriontsuak denoi!

GOIAGI
OBINDEGI
Ogigintzan onenak!

- ◆ Egurrezko labean egindako ogi gozoa
- ◆ Opil finak
- ◆ Eguneroko ogia
- ◆ Ogi bereziak
- ◆ Ogi artisauak

Etxezarreta z/g ORDIZIA ☎ 943 160501

GABIONA
Rodamientos, S. A.
gabiona@euskalnet.net

Biltegi eta bulegoak:

Goierrri k. 4
Goierrri K. z/g ☎ 943 88 45 00 Faxa: 943 88 99 06 **ORDIZIA**

IGARATZ

ILEA PAINDEGIA

Ileapaindegia

Depilazioa

Aurpegiko
tratamenduak

Manikura eta
pedikura

Solariumak

Makilajea

*Jai zoriontsuak
ordiziar guztioi!*

**Abuztuan
zabalik**

☎ 943 883 180

Nafarroa Etorbidea, 6

BEASAIN

ARANTXA

b o d e g o i a

- Pintxoak
- Otartekoak

☎ 943 88 72 46


Ordizia Kalea, z/g
ORDIZIA

*Jai zoriontsuak
guztioi!*



SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA

SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA



Urtebete egitera goaz gure zentru berrian, behar guztiak asetzeko erabat horniturik dagoena; elbarrituentzako guztiz egokitutako instalakuntzetik hasi eta zure ongizatea lortzeko behar diren guztiak zaindu ditugularik. **Teknologi aurreratuenak zure esku** jarri, gure lan talde espezializatuak norbanako tratamendu egokienaz landuko ditu zure beharrak, bai **inplantologi**, **estetika** edota **zirugi** mailan.

Erabateko hortz klinika integratua.

SMC

ERABATEKO

GURE INSTALAKUNTZAK ELBARRITUENTZAT

HORTZ

ERABAT EGOKITUAK DAUDE, KLINIKAK SAN


KLINIKA

INAZIO KALE BERTARA EMATEN DUELARIK

INTEGRATUA



Teknologia, profesionaltasuna eta arreta, zerbitzu bakar batean bateratuz, giro goxo batean, zerbitzurik hurbilena eskeiniz, dentistarekiko zure ikuspegia aldatuko dugu.



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)